



Patxi ASTIBIA

→ 37

73 urterekin
sasoi betean**Kirola**

Inaxio PERURENA → 36

LESAKA → 12Gazte Eguna ospatuko
dute apirilaren 2an**SUNBILLA → 17**Eskola berriaren premia
berretsi dute**ARESO → 24**Indusketa lanetan ari dira
Ulizar parajeetan**BAZTAN → 29**7 milioi euroko inbertsioa
Belateko tunelean**Basoko suteak** | 2015eko errepasoa

ERREPORTAJEA → 3-5

ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Laguntza inplikazio truke

Datuak dira lekuko: basoko sute gehienak nahita piztutakoak dira. Horrek, ordea, arazoak sortzen ditu, suhiltzaileak sua itzaltzera joaten direnean, eskualdean izan daitezkeen bertze ezbeharrak artatzeko ez baita inor gelditzen Oronoz-Mugairiko parkean. Hala, suhiltzaileek elkarlanerako deia egin diete herritarrei, basoko sutea prebenitzeko neurri bat laguntza eskaintzea delakoan: laguntza eskaini bai, baina herritarren inplikazioa ere eskatu dute.

ELIZONDO → 27

Transformazio esperientziak hizpide

Nekazaritza eta abeltzaintzari eskainitako jardunaldi-mintegia apirilaren 2an izanen da.

EUSKAL HERRIKO IDAZLEEN BILTZARRA SARAN, MARTXOAREN 28AN → 21

Gazteak erakartzea eta euskarari toki haundiagoa egitea, Sarako 33. idazleen biltzarren helburu nagusiak

11 argitaletxe, 22 elkarte eta ehun idazletik goiti bilduko dira Saran eginen den 33. Idazleen Biltzarrean. Nobedadeekin heldu da aurtengo edizioa, gazteak erakarri eta euskarari toki haundiago eskaini nahi baitiote. Lau gune berezi prestatuko dituzte: erakusketa artistikoen txokoa, liburuak dohainik irakurtzekoa, haurrena eta mintzaldi eta hedabideena. Itxaro Borda eta Michel Iturria omenduko dituzte.

**ZOKKETAK → 44**

Txartela egiteko deitu
948 63 54 58ra edo idatzi
info@ttiipi.eusera.

Sartu
gure web berrian
WWW.SILOTITE.COM



www.silotite.com

Silo bolak egiteko plastikoa

- Edozein belar klasetan erabilgarria
- Aukeran 500 mm eta 750 mmtan
- Zultzeko gogorra eta tiramenduetarako sendoa
- Elastikotasun ezin hobea
- Memoria elastiko bikaina
- Ongi itsekitzen dena
- Baldintza atmosferiko guztietan erresistentzia onekoa eta UV egonkortasun handikoa
- Ingurumenarekin erasokorra ez den plastikoa



SILOTITE
by formipac



Silotite®. Segurtasunaren aukera

AROZ-BERRI, S.A.

irurita@arozberri.com - Pol. Zaldubia NA-8307, km 0,8 - 31730 IRURITA (Nafarroa)
Tel. 948 581 021 / 948 580 258 - Faxe 948 452 103 - www.arozberri.com



ARGAZKIA: ISIDRO ETXEBERRIA

Eguberrietan Arantzan piztutako suteko irudia da. Nahita piztutakoa izan zen eta kalte handiak eragin zituen.

BASOKO SUTEAK → 2015EKO DATUEN ERREPASOA

Basoko suteen %90 baino gehiago nahita piztutakoak dira

Abenduan Nafarroan izandako basoko suteetan 598,4 Ha erre ziren, horietatik 546,2 eskualdean

Datu adierazgarriak utzi ditu 2015ak basoko suteei dagokien. Horretaz eta oraindik zabalik dagoen neguko kanpainaz aritu

zaigu Javier Ayarra Ullate, Oronoz-Mugairiko suhiltzaileen arduraduna. Kontuan hartzeko ohar batzuk eman dizkigu.

G. PIKABEA

«Basoko suteen neguko kanpainak hasiera mugitua izan du». Halaxe azaldu digu Javier Ayarra Ullate sarjentuak, Oronoz-Mugairiko suhiltzaileen parkeko arduraduna. Ez zaio arrazoirik falta. Izan ere, joan den abenduaren 16an Goizueta eta Leitza artean, Mandoegi mendian izandako sutearen ondotik, Igantzi eta Lesakakoa etorri zen, eta gero Arantzakoa. Eta segituan Le-

karozen Legate mendian. Abenduan, egun guttitan, urte osoan erre zenaren ia erdia erre zen, ia 550 hektarea. Nafarroa oso suhiltzaileen parkeetako datuak aintzat hartuta ere, adierazgarria da Oronoz-Mugairiko kasua. Joan den urteko abenduan 598,4 hektarea erre ziren suteetan Nafarroan, eta horietatik 546,2 Ha Oronoz-Mugairiko parkeari dagokion eremuan. Eguraldiak ere ez zuen lagundu: «basoko kan-

paina eguraldiaren araberakoa izaten da beti. Joan den abenduan euririk gabeko egun aunitz izan genituen, eta mendiak erretzeko arriskua areagotu egin zen».

Deigarria den bertze datua: sute gehienak nahita piztutakoak dira. Oronoz-Mugairiko suhiltzaileen arabera, «basoko suteen %90 baino gehiago». Urtetik urtera datuak hobetu direla aitortu digu Ayarrak: «erretako hektareak eta suhiltzai-

leek aldi berean egin beharreko irteera kopurua jeitsi egin dira. Lehen, 16 suteko egunak izaten genituen». Edozein moduz, herritarrekin elkarlana ezinbertzekoa dela nabarmendu du: «bai ala bai, hemen beti erreko dela aditu dugu, egunez ez bada, gauez. Eta guk egunez erretzea aukeratzin dugu. Bizilagunek mendiak garbi eduki nahi dituzte eta aziendak etxetik ikusi, eta hori modu antolatuan egiten saiatzen gara, herritarrei inplikazioa eskatuz. Gure aldetik, atentzioa eta laguntza eskainiz, baina euren aldetik inplikazioa eskatuz». Garbi solastu zaigu suhiltzaileen arduraduna: «basoko sutea prebenitzeko neurri bat laguntza eskaintzea da. Suterik ez izateko aukera gehiago dugu horrela, nahiz eta ez den beti hala izaten». Bere irudiko, «intentsio kontua da: batzuk ez dute baimenik eskatu nahi edo ez dute prozedura horretan sartu nahi, edo esperoan egoteaz aspertu direlako su ematen hasten da. Baina guk dugun jendearekin ezin



KONTUAN HARTZEKO

«Norbaitek sua nahita pizten duenean, eskualdeko gainerako ezbeharrak artatzeko ez da suhiltzailerik gelditzen parkean»

Javier AYARRA ULLATE
Ornoz-Mugairiko
suhiltzaileen parkeko
arduraduna, sarjentua.

dugu denera ailegatu, gure mugak ditugu». Hortik aparte, emaitzak hobetu badira ere, «eguraldiak gehiegi baldintzatzen duela» ere gaineratu du.

ERRETZEKO 15 PARTZELA

Kanpaina hasiera mugitua izan bazen ere, geroztik «egoera lasaia» izan

dela azaldu digu. Martxoaren 30ean bukatuko da erreketak egiteko baimenak eskatzeko epea eta oraingo, Oronoz-Mugairiko parkean hamabortz partzela omen dituzte baimenduak. Guztiak hirugarren mailakoak, hau da, arrisku maila altukoak eta beraz, suhiltzaileen presentzia behar dutenak.

Arrisku maila hainbat faktore kontuan hartuz zehazten dute. «Bertze urteetan Ingurumen Sail-lekoek lursailak arrisku mailaren arabera sailka-tu izan dituzte eta hortik aitzinera, suhiltzaileok eremuak bisitatzerakoan eta lanerako plana finkatzen genuen. Gurekin kontatugabe eremuak tipifikatzea guretzat arazoa zela ohartarazi izan du-gu. Lursail batzuek ez zu-telako arriskurik eta In-gurumen Sailerik hala adierazten zutelako joan behar izaten genuen, eta alderantziz, bertze partze-la batzuek arriskua bazu-ten eta ez zuten izenda-pen hori. Aurten, ordea, arrisku maila baloratzerakoan, eurekin parte hartu

nahi dugula azpimarratu dugu, eta ez eurek egin-dakoa hartu, ezustekoak saihesteko».

Suteen kanpainarako laguntza jasotzen dute Oronoz-Mugairiko par-kean, Nafarroako Gober-nuak suhiltzaile gehiago bidaltzen ditu. Aurten api-rilaren 9a aldera arte egonen dira. Baina bai-menak martxo hondarre-ra arte eskatzen ahal di-rela kontuan hartuz, «ho-ri guretzat arazoa» dela onartu digu sarjentuak: «erreketa batek hiruzpa-lau eguneko lana eska-tzen baitu partzela bako-i-tzean. Arrisku maila ze-haztutakoan Ingurumen Sailari erretzeko baimena eskatu behar zaio, eta baimena ailegatzean bertze bisita bat egiten da erretzeko plana ze-hazteko: azpiegiturak, sarbideak, nolako egu-raldia komeni den, non-dik hasi erretzen...».

AITZINEKO LANA


Sute baten deia jaso-tzen dutenean, suhiltzai-leak berehala ateratzen dira. Bitartean, ordea, ar-duradunak sutea da-

2015EKO ABENDUAN ESKUALDEAN IZANDAKO SUTEAK		
DATA	KOKAPENA	KAUSA
2015/12/07	Arraioz	
2015/12/08	Arraioz	Nahita piztua
2015/12/14	Zugarramurdi (Azkar)	Nahita piztua
2015/12/14	Arraioz (Legate)	Nahita piztua
2015/12/16	Doneztebe (Askin)	Bertzelakoak
2015/12/16	Goizueta	
2015/12/16	Goizueta	
2015/12/17	Igantzi (Frain)	Nahita piztua
2015/12/18	Lekaroz (Legate)	Larre erretzea
2015/12/18	Arraioz (Orabideko bidea)	Nahita piztua
2015/12/19	Igantzi	Zehaztugabea
2015/12/19	Igantzi (N 121 A errepidea)	
2015/12/20	Donamaria (Igurin)	
2015/12/20	Ituren	Nahita piztua
2015/12/21	Zugarramurdi (Atxuria)	
2015/12/21	Gartzain	Nahita piztua
2015/12/23	Arantza (Aientsa)	
2015/12/24	Arraioz	Zehaztugabea
2015/12/24	Arantza (Eguzkialdea)	Nahita piztua
2015/12/26	Baztan (NA-2600 errepidea)	Nahita piztua
2015/12/26	Lekaroz (Legate)	Nahita piztua
2015/12/27	Lekaroz-Elizondo (Institutua)	
2015/12/27	Lekaroz	Nahita piztua

goen ingurua aztertzen du: «zein eremu den eta sarbiderik egokiena zein den aztertu, aitzineko ur-

teetan suterik izan den eta erretzeko gai guttie-na non dagoen ikusi, egu-raldia eta sua nora joan

daitekeen aztertu, urpun-tuak kokatu... Horiek guztiak kontuan hartuz, arduradunak bidean di-



2015EAN ESKUALDEAN IZANDAKO BASOKO SUTEETAN ERRETAKO HEKTAREA KOPURUA (ORONOSKO PARKEA)												
Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Guztira
4,8	0	10,55	258,5	2,5	0	0,45	0,02	0	0	1,5	546,2	824,52

ren suhiltzaileei informazioa pasatzen die».

Informazio hori eskuratzeko datu base bat erabiltzen dute. «Datu base horretan sarbideak erregistatuak ditugu, errepideak, pistak eta nolako ibilgailuak pasatzen ahal diren ere bai, ur puntuak mendian non dauden zehaztuak ditugu, suteak errepikatzen diren puntuak eta eremu bakoitzean nolako landaretza dagoen zehaztua dago, azken suteak eta erretako eremuak identifikatuak ditugu, eremu arriskutsuak zehaztuak, azpiegiturak eta babes eremuak kokatuak...».

BOLUNTARIOEN ETA HERRITARREN LAGUNTZA

Suhiltzaile boluntarioez eta suteak itzaltzerajoa ten diren herritarrez ere ez da atzendu suhiltzaileen arduraduna. Sute bat tartean dagoenean, Koordinazio Batzordeak mugiarazten ditu bitartekoak, egoeraren arabera suhiltzaile boluntarioak eta profesionalak mobilizatuz. Ayararren irudiko, «suhiltzaile boluntarioekin aunitz hobetu daiteke. Gaur egun, erakunde berean gaude, baina elkarlana falta da. Helburua denak batera lanean aritzea da, elkar ezagutu eta harremanetan egotea».

Sutea itzaltzen laguntzerajoa ten diren herritarrez, berriz, zera erran digu: «guretzako potentzial edo indar haundia dira, inguruak ezagutzen dituztelako. Baina aldi berean, arazoa ere izan daitezke». Eta arrazoa azaldu digu: «batzuk gure antolaketa ren barne laguntzeko prest agertzen dira, baina bertze batzuk gure antolakuntzatik kanpo aritzen dira. Ulertze-

2015EKO ABENDUAN NAFARROAN IZANDAKO BASOKO SUTEAK		
SUTE KOPURUA	SUHILTZAILEEN PARKEA	ERRETAKO HEKTAREAK
3	Altsasu	0,1
0	Auritz	0
6	Cordovilla	50
6	Lizarra	0,5
1	Lodosa	0,01
2	Nabazkoze	1,15
21	Ornoz	546,2
1	Iruñea	0
5	Azkoien	0,04
0	Zangotza	0
3	Tafalla	0,1
6	Tutera	0,3
54	GUZTIRA	598,4

2015EKO APIRILEAN NAFARROAN IZANDAKO BASOKO SUTEAK		
SUTE KOPURUA	SUHILTZAILEEN PARKEA	ERRETAKO HEKTAREAK
5	Altsasu	1,15
8	Auritz	6,1
25	Cordovilla	13,88
16	Lizarra	3,37
3	Lodosa	7
4	Nabazkoze	1,3
26	Ornoz	258,5
5	Iruñea	0
8	Azkoien	1,51
4	Zangotza	4
18	Tafalla	5,28
26	Tutera	7,42
148	GUZTIRA	309,51

DATUAK: ORONOZ-MUGAIRIKO SUHILTZAILEEN PARKEA

Datu adierazgarriak utzi zituen 2015ak. Hilabetez hilabete, apirila eta abenduan lursail eremu haundiak erre ziren gure eskualdean. Urte osoan 824,52 hektarea erre ziren eta horietatik 258,5 apirilean eta 546,2 abenduan. Nafarroa osoko datuekin alderatuz, aipagarriak dira eskualdekoak. Nafarroan apirilean erre ziren 309,51 hektareetatik 258,5 Ha erre ziren gure eskualdean, eta abenduan 598,4 hektareatik 546,2 Ha.

koa da borda bat sutan ikusiz gero, bizilagun horri laguntzera joan nahi izatea. Baina kontuak konplikatu daiteke. Ez dauka komunikatuak eta ez dute jantzi egokirik, ezta tresna eta babesteko materialik ere.

Suhiltzaile profesionalak sute bakoitzean «estrategia orokorra» diseinatzen dute: «hemen hau honengatik egiten dugu, eta han ez dugu egin bertze arrazoi bategatik. Herritarrek, ordea, ikuspegi lokala dute: 'sua heldu da, suhiltzaileak ez datoz, eta nik hemen hau egin behar dut', pentsatzen dute. Gu elkar komunikatuak gaude eta gure antolakuntzan daudenei gure estrategia azaltzen diegu. Partaide guztiek badakite zergatik egiten den gauza bat eta zergatik ez den egiten bertzea. Antolakuntza horretatik kanpo daudenek sua borda batera hurbiltzen ari dela ikustean, beraien alde tik hartzen dituzte eraba-

kiak, eta horrek dena baldintza dezake. Bere gisara ari denak ongi ala gaizki egin dezake».

Basoko suteak «arrisku haundikoak» direla ohartarazi du suhiltzaileen arduradunak eta Igant ziko sutea ekarri du gogora: «sute hartan sei zazpi baserri arriskuan egon ziren, eta halakoe tan bakoitzak bereari begiratzen dio. Baina geografikoki, sua batera bertzeetara baino lehenago tik ailegatuko da. Batek bertzeek baino arrisku haundiagoa izan dezake, nahiz eta bakoitzak bere baserria ikusi. Antolakuntzaren barne dagoenak dena hobeki ulertzen du». Are gehiago, «sua hagitz agresiboa da eta tentsio uneak sortzen dira. Antolatuta gauzak hobeki ateratzen dira. Eta pertsona batek mendia ri su ematea pentsatzen badu, akaso ez dio bere buruari kalterik eginen, baina arazoa bertze batzuei bidera diezaieke».

SEGURTASUN PROTOKOLOA

Suhiltzaileek segurtasun protokolo bat izaten dute suteen aitzinean. Bortz puntutan labur daiteke:

- **Batzuk bertzeen zaintzaile:** sua dagoen ingurura sartuz gero, beti norbaitek ingurua zaindu behar du.
- **Sua itzali dela ziurtatu:** itzaliztat joz gero, sua berriz ez dadila piztu ziurtatu behar da, dena itzalia egon dadila.
- **Komunikazioa** ezinbertzekoa da.
- **Ihesbidea:** alde egiteko bide bat identifikatua izan behar da.
- **Eremu seguru bat** identifikatu behar da.

KONTUAN HARTZEKOA

Suhiltzaileen egitekoa ez da sua itzaltzera mugatzen. Hortaz, Ayararak garbi utzi du «norbaitek sua piztean, suhiltzaileak hori kontrolatzera joaten direla eta beraz, ezin dutela gainerako deus ere artatu». Eskualdean tximini edo baserriren batek su hartu badu, mendiko istripuren bat izan bada, norbait bilatu behar bada, trafikoko edo lan istripuren bat izan bada, tuneletan suteraren bat izan bada eta bereziki osasun-irteeraren bat egin behar bada (bihotzekoak, monoxido intoxikazioak, erditzeak...) «Ornoz-Mugairiko parkean ez da suhiltzailerik gelditzen. Iruñetik etorriko dira, baina ordubete beranduago». Sute batzuk istripuz sortzen dira, eta horren adibide abenduan Igantzin izan zena, itxuraz, zuhaitz bat argindar kable baten gainean erorita piztu baitzen. Baina «norbaitek sua nahita pizten baldin badu, bertze istripu eta ezbeharrak airean gelditzen direla kontuan hartu behar harko luke».

**Nire txanda**

Fernando ANBUSTEGI

35 urteko gaztea

35 urteko gazte baten bizitza laburbiltzea ez da erraza. Jaiotzen denetik, lehenbiziko soinua kanporatzen dituenetik, inguruan eragiten duen pozetik, ilusiotik, zoriontasunetik abiatuta. Lehenbiziko pausuak ematen dituenetik, lehenbiziko irribarrea erakusten duenetik, lehenbiziko eztabaida, lehenbiziko oztopoa topatzen duenetik...

«Bizitzaren gazi-gozoak ezagutzen ditu gazteak, eta guztia bizkarrean hartuta aitzinet segitzen du»

35 urteko gazteak lagun berriak egiten ditu, lagun leialak mantendu, lagun batzuk bidean galdu, akaso. Inguruko elkartasuna somatzen du, inguruko maitasuna, gorrotoa edota ezinikusia agian. Bizitzaren gazi-gozoak ezagutzen ditu gazteak, eta guztia bizkarrean hartuta aitzinet segitzen du. Batzuetan kontent, bertzeetan triste, aitzinet. Bizitakoa irakasgaitzat hartuta, inguruko babespean, inguruko elkartasuna, maitasuna partekatuz. 35 urteko gazteak aunitz du ikasteko, ikusteko, egiteko. Hala izan bedi. Zorionak Xorroxin Irratia!

Ezpala

Aitor AROTZENA

Jon Maiari plagioa

Otegiren gibeletik Ixabel Pantoja askatzekotan direla eta, Jon Maiaren belodromoko eredu segituz, olerki gogoangarria prestatu dute *que viva España, olatu baten moduan, zure gorputzari poztasuna emateko Macarena, gurdia ebatsi baino lehen...* Beharbada ez da guztiz poetikoa gelditu eta *Pakito txokolateroa* ez da sartu, baina onena bukaerarako utzi dute: *Poronponpero!*

NabarmentzekoakPatxi ASTIBIA
Leitzako aizkolaria

Ramon Latasari Sunbilla eskaini zitzaion omenaldian oinbiko enborra moztu zuen 7 minutu eta 47 segundotan. 73 urterekin ere beti izan zuen kalitatea nabarmen utzi zuen plazan.

Sagrario TELLETXEA
300 euroko saria

Denok Bat Federazioak martxoko lehen asteburuan Beran antolatutako Baztan-Bidasoaldeko II. Salgai Hondarren Ferrian zozketatutako 300 euroak irabazi zituen Arantzako emakumeak.

Iker SALABERRIA
Goizuetarraren txapel uzta

Otsailean binaka Malerreka eta Tolosako Soroa txapelketa irabazi ondok, martxoaren 15ean Soralezeko lau eta erdiaren barreneko txapelketa irabazi du, txapel uzta handituz.

Atzera begira → 2006-III-30 / TTIPI-TTAPA 419 zk.

**Lesakako Tantirumairu dantza taldeak 25 urte**

Duela hamar urte, 25. urteurrena ospatu zuen Lesakako Tantirumairu dantza taldeak eta taldeko arduraduna zen Garbiñe Sarasolarekin bildu zen TTIPI-TTAPA. Izan ere, mende laurdena ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuak zituzten. Urte hartan 112 dantzari zituen Tantirumairuk eta Sarasolak aipatu zigunez, «betiko dantza pausuetan oinarrituz koreografia berriak dortu ditugu». Lesakan ez ezik, Euskal Herrian eta bertze zenbait lekutan eskaintzen zituzten dantzak: «Nahi baino guttiago mugitzen gara -onartzen zuen arduradunak-, bana Bretainian, Galizan, Tarragonan. Burgosen eta bertze zenbait lekutan izan gara».



Argitaratzailea Titi-Ttapa Fundazioa • **Egoitza** Koskontako bidea, 07-1 • 31770 LESAKA
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@titi-ttapa.eus

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredakzioa** Gurutze Pikabea, Eneritz Iraola **Publizitatea** Usoa Vicente, Amaia Odriozola, Arantza Agirre **Berriemaileak** Juana Mari Saizar, Ainhoa eta Maider Ansa, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Alzuri, Joseba Urrotz, Irune eta Itsaso Elizagoien, Maider Petirena, Markel Lizasoain, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Izaskun Gofii, Joana Guerendiain, Martin Bertiz, Nerea Telletxea, Mattin Larraide, Juan Mari Barriola, Joxean Ortega, Iñigo Imaz, Marga Erdozain

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • **ISSN** 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Leiza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdioko Akelarre elkart, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2016ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerreka	34€
Leitza	20€
Hego Euskal Herria	40€
Ipar Euskal Herria, Europa	74€
Amerika eta Australia	124€

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua



Bortzirietako Euskara
Mankomunitateak
diruz lagundua

MEK NA
MEZENASGOA KULTURA NAHARRA



Kolaborazioak

Fukushima, bortz urte

Luis GARDE

Best seller horietako batetik ateratako argudioa zirudien: Ozeano Barean, uharte japoniarretik hurbil, bi plaka tektoniko elkar ukitzen duten lekuan, itsasikara bat gertatu da. Ondorioz, *tsunami* bat, uhin erraldoi bat alegia, haietako irla baterantz doa. Ondorioz, zentral nuklear baten errefrigerazio sistema hondatzen da. Ondorioz, erreaktoreetan istripu nuklear larria gertatzen da. Ondorioz, haize kutsatua Tokiora berara heltzeko arriskurik dago. Irudi haiek zuzen-zuzenean ikusten genituen, gertakariak gauzatu ahala, nik neure buruari galdetuz kontu hura benetakoa edo amets zakurra zen.

Betidanik erran izan denez, japoniarrak bikain presaturik daude euren herrialdean ohikoak diren lurrikarei aurre egiteko. *Tsunami* hitza bera japoniar hizkuntzatik omen datorkigu. Baina egun haietan jakin genuenez, hamabortz metroko uhin hark ipar ekialdeko kostalde japoniarraren zati haundi bat suntsitu zuen. Kalteen zifrek oraindik ere ikaratzen gaituzte: hemeretzi mila hildako, kasik milioi erdi etxegabetu, hamarna herri desagerturik... Oraindik lur kutsatuz beteriko hamarna mila zaku daude pilatuta, baita zortzirehun mila tona ur erradioaktiboa hainbat zabortegei eta tanke berezitan, hondakin horiekin zer egin inork ez dakiela. Zenbait hamarkada pasatu

«Oraindik lur kutsatuz beteriko hamarna mila zaku daude pilatuta, baita zortzirehun mila tona ur radioaktiboa hainbat zabortegei eta tanke berezitan, hondakin horiekin zer egin inork ez dakiela. Zenbait hamarkada pasatu

ko dira eskualdea guztiz garbitu arte. Bortz urteren buruan hagitz esanguratsua izan da istripuaren garaian Japoniako lehen ministroa zen *Naoto Kanen* iritzia. *Non solastu eta Greenpeace-ko Rainbow Warrior* barku famatuaren kubiartatik, itsasontzia Fukushimatik bi kilometro eskasean nabigatzen ari delarik. «Martxoaren 11 hura baino lehen, indar nuklearraren defendatzaile sutsua nintzen. Gogoz saltzen nituen gure zentral japoniarrak atzerrian. Istripuaren ondoren ohartu nintzen 50 milioi pertsona beren etxeetatik ebakuatuak izateko zorian egon zirela». Dioenez, ahal zuen bezala kudeatu zuen krisi hura, zentralaren enpresak ezkutatu baitzion informazioa. Bukatzeko: «Gaur uste dut zentral nuklear guziak itxi beharko liratekeela eta eginen dut posible den guzia hori gerta dadin».

Jaiak lehen eta orain

Esteban IRUSTA

Euskal Herrian astearen egunak aipatzeko izen desberdinak erabiltzen ditugu eskualde batzuetan. Horien artean, Mendebaldean *Eguena* denari, Ekialdean *Orteguna* deitzen zaio, euskara batuan *Osteguna* izenez ezagutzen duguna. Euskalarien esanetan *Eguena* Argiaren lotzen dute eta *Orteguna*, Zeruarekin. Kristautasun aurreko euskaldunek, egun horretan, beraien "jainkoei" eskaintzak eta eskariak egiten zizkieten. Lana izan da gizasemeen zeregin nagusia historian zehar. Berak betetzen zuen bizitzaren ia denbora guztia, baina beraien sinismenen ospaketek ere bazuten bere tokia. Bazituzten bada, bere atseden egunak, bere "jai" egunak. Horietako batzuk, eguzkiarekin lotutakoak, Eliza Katolikoak bereganatu zituen. Adibidez: San Juan eta Gabon jaiak. Gure inguru eta garaietara etorri, jaiak erlijio katolikorekin lotuta ezagutzen ditugu. Herri gehienetan Santu baten inguruan ospatzen dira. Egia da Santuek, gero eta eragin gutxiago dutela belaunaldi berriengan. Baina sasoi batean jaiak nagusia, Santu "Patroiaren" egunera mugatzen zen. Egundorretan, zapata berriak, jantzi berriak estreinatzen ziren. Herriko kantariek, elizan jendez leporaino beteta, Meza abesten zuten. Egundorretan, urte guztian ikusi gabeko senide gonbidatuak izaten zizuten mahaikide. Jai egunak zentzu guztiz desberdina dute gaur egun, denontzat, eta gazteentzat, batez ere. Elizkizunak betetzen zuen papera desagertu egin da jende helduarentzat izan ezik. Gaurko eguneroko jaiak hobeak dira orduko jai egunekoak baino. Berdin esan daiteke janzkiei dagokionez. Senideen bisitak ez du sortzen interes berezirik, zeren beraiekin egoteko aukerak, nahiz eta urruti bizi, samurragoak eta sarriagoak izaten direlako. Zein da gaurko jaien zentzua? Jende nagusiarentzat ez daukate zentzu gehiegi. Askorentzat batere ez. Horregatik, ahal badute herritik kanpora joaten dira egundorrek direla eta. Neurri handi baten, ekintza asko, egundetik gauera pasatu direnez, sarritan egunez jai usainik ere ez da sentitzen. Gauak bere erakar-indarra ez du galdu; alderantziz, gero eta sendago dagoela ematen du. Garai batean, ekintzak gauerdian bukatzen baziren, gaur egun gau guztia motzegia gelditzen zaie la dirudi. Zeintzu dira gaurko jaien helburuak? Ez da samurra jakiterik. Garbi dagoena da, ez direla lehenagokoen berdinak. Gazteek ere ez dute urteko jaiari begira egon beharrik, zeren asteburu guztiak dituzte horretarako. Jaietan gehien gozatzen dutenak umeak eta gaztetxoek direla dirudi. Hauentzat dena edo ia dena da berria. Baina gaztetxoek ematen die gurasoei buruhauste gehien urteko jaietan eta, batez ere, asteburuetan. Nagusi izateko gogoz, edo edariekin gehiago gozatzen dela pentsatuz, beraien portaerak zeresan asko ematen du gizartearen. Askotan jaiak edanarekin eta gaupasekin lotzen dituzte, psikologikoki bide horretara eramanez. Inoiz egin da azterketa serio bat, ea gaztetxo behaiek zer iritzi duten bere portaerari buruz? Ohiturak, norabide orokorrak aldatzea ez da samurra, eta errezena ezer ez egitea da.

Irakurleak mintzo

Ramon Latasaren
heriotzaren 25.
urteurrena

Antton ESPELOSIN (Sunbilla)

Zorte handiko pertsona nai-zela uste dut, zerbait gogoratu eta beti daukat jendea ondoan laguntzeko prest. Hori bai, egiten dugun guztia beti gure herriaren alde izaten da. Oraingo honetan Ramon Latasaren heriotzaren 25. urteurrena zela eta, lehendabiziko meza eta ondoren aizkora jaialdi berezi bat antolatu genuen, eta nirekin batera hor aritu ziren lanean; Aitor Ibarra, Mikel eta Unai Bertiz, Xabier Urrutia eta nire anaia Felix. Egu-raldiak lagundu ez baldin bazuen ere, sekulako jendetza bildu zen Sunbilla pilotalekuan jaialdia ikustera, 700 bat ikusle inguru. Hor garbi ikusi da gure zonalde honetan aizkorarako zaletasun handia dagoela eta, baita ere, Ramon Latasaz oraindik jendea gogoratzeko dela. Bikain portatu zen hurbildutako jendea, gastuei aurre egiteko 1.500 rifa atera gintuen saltzeko eta denak saldu ziren. Jaialdian hiru belau-nalditako hiru aizkolari aritu ziren aizkoran eta hiruek maila bikaina eman zuten. Hasteko, Patxi Astibia veteranoa aritu zen oinbiko bat moztan, 73 urterekin. Aizkora aspaldi utzi zuen, baina erakutsi zuen oraindik ez daukala ahaztua aizkoran, dotore moztu zuen enborra. Donato Larretxea eta Iker Vicenteren arteko lehia berezia zen eta biek erakustaldi bikaina eman zuten, eta bildutako jendearen txalo zaparra da galanta jaso zuten biek. Egun dotorea izan zen, etorritako jendetza gusturajoa zen etxera eta aizkolariek ere bai, eta gu antolatzaileak ere hagitx gustura. Ondoren, bazkaria izan genuen eta 24 lagun

bildu ginen, eta arratsalde eder-
rra pasa genuen.

Ez nuke ahaztu nahi eta es-
kerrak eman nahi dizkiot jaial-
di hau antolatzeko diru lagun-
tza eman duten guztiei, era-
kutsi baitute krisi garai hone-
tan oraindik badagoela jende
esku zabala.

Manu Aierdiren
bisitazFlorentino GOÑI eta Joseba
OTONDO (Baztango udaleko
herri-lanetako zinegotzia eta
Baztango Udaleko alkatea)

Otsailaren 12an, Manu Aier-
dik, Nafarroako Gobernu-
ko ekonomiako presidenteorde-
ak, eskualdeko eragile ekono-
mikoekin Bertizeko jaurerrian
bilera egin zuen. Bileraren hel-
burua Gobernuak eskualdeari
buruz duen proposamen ekono-
mikoa aurkeztea zen. Baztango
udala ez zuten gonbi-
datu. Haatik, udaleko Geroa
Baiko zinegotzietako batek han
egoteko aukera izan zuen.

Halako hitzorduetarat uda-
lak ez gonbidatzea norbera-
ren aukera da, baina norbera-
ren alderdikoa bakarrik gonbi-
datzea ez da elegantea. Be-
tiere, landa-garapenari buruz
azkeneko hamarraldietan ga-
ratu den praktikak eta haren
emaitza den teoriak, landa-
eremuen garapenean udalek
paper garrantzitsua dutela dio-
te. Horrek, argi denez, ez du
erran nahi eragile bakarrik di-
renik, baina bai, landa-eremu
horretako gainerako eragileen
artean tokia dutela. Normale-
na gobernuaren eta eskualde-
en artean elkarlanerako gune-
ak sortzea litzateke, zeinean
tokiko eragileen ordezkaritza
zabalak parte hartu beharko
bailukeen; udalak, tartean di-
rela. Alta, Aierdik nahiago du



Bota bertsoa

Julen ZELAIETA (Bera) • Doinua: Iparragirre abila dela...
Iruñeko Udalaren Bertsopaper lehiaketan 3. saria (Denera 35 bertso)

Ze denb(OHO)rak!

1. Bat hipotekak ito duela,
bertzea bi umeen kargu,...
denborak, antza, bakoitza bere
lekuan jartzen dihardu.
Nahiz batzuri gargero
burua soildu, edo,
ile zuriak azaldu,
harro diogu: O.H.Oko
BELAUNALDIA gara gu! (bis)
2. Haur pila biltzen ginen auzoan
han egiten bait zen dena.
Lagunak egin beharra ez zen
inoiz izaten problema.
Ez Facebook ta ez Twitter,
gu, kaleari esker
gara gaur egun garena;
hura delako, inoiz izan den
sare sozialik onena (bis)
3. Erran bezala, kalea gure
topaleku izaten zen.
baina iluntzen hasten zenean,
afal orduan hain zuzen,
zertarako watsapa?
balkoira atera, ta,
amak: «ordua da, goazen!»;
hau nahikoa zen, gu ohartu ta
etxera itzul gintezen (bis).
4. Orduan nola ibiltzen ginen,
gutako edozeini galde;
Kotxean sartu ta gerrikorik
ez genuen, alde-alde,
txirrindan, patinetan...
herri osotik bueltan,
kasko ta babesik gabe...
ta ez zitzaigun ezer pasatu;
oraindik bizirik gaude! (bis).
5. Gaur egun zenbat *Monovolumen*
ikusten diren kanpoan!
Haurdun gelditu ta autoz aldatu
ohi da berehalakoan.
Hartu *Familiarra*
Golf-a txiki xamarra
geldituko delakoan.
ba, gu sei, errez kabitzen ginen
aitaren *Errezinko*-an (bis)
6. Jantzkerak ere aipatzekoa
izan daiteke, seguru.
Ondotik, anai ttikiagoen
esku uztea helburu,
Petaxoak galtzetan;
erdian nahiz ertzetan,
dozena erdi inguru!
Gaur *kremallera* hautsi orduko
berria erosten dugu (bis).
7. Hain ginen ume jostalariek,
mugituak ta eroak,
gaixoak gure galtza, galtzerdi
jertse edo kuleroak!
igandera iritsi
ta ze ohitura bitxi
ta bereziak lehengoak:
Txandala aste tartetako zen;
igandetan, *Bakeroak*! (bis)
8. Paga eguna izaten zela
eta nola ez atsegin?
sei egunez zai egoten ginen
igandea heldu zedin;
hamaika gominola
lau txikle, *koka kola*,
hiru *Txupatxus* desberdin,...
ze mirariak egiten ziren
hogei duroko batekin! (bis)

udalen gainetik aritu, Arozte-
giako PSISarekin eta otsaila-

ren 12ko bilerarekin ikusi du-
gun bezala.

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: **info@ttipi.eus**
Posta: **Koskontako bidea, 07-1, 31770 LESAKA**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**

Prentsarik bildutakoak



«Joan ziren lehenbiziko emakumeek ez zuten ez egun liberrik ezta oporrik ere. Beraientzat hagitz gogorra izan zen. Azken urteetan honat etxeko lanetan aritzera etorri diren emigranteekin badute paralelismo bat. Denbora eta distantzia alde batera utzita, badira osagari berdintsuak. Hasieran beltzean lan egiten zuten, eta gero egin zizkieten paperak...».

Jon ABRIL
'Neskatoak' filmaren egile
D. NOTICIAS 2016.03.06



«Amorru ikaragarria ematen dit oraindik sorginkerietan sinesen dutenak badaude la ikusten dudanean. Ikerlari batzuek proposatu zuten, agian, talde sorginkeria paganismoarekin lotu zitekeela. Sorginkeria tradizionalaren gainera sineskeria bai, egon da, eta segitu du, Afrikan edo Nepal... Beste sorginkeria mota bat da, tradizionala».

Juainas PAUL ARZAK
Zubietako historiagilea
GAUR 8 2016.03.12

11 galdera labur

Nor dugu Julio Perugorria?

32 urteko aita txiki bat, rubik kubokin zaletua, baina pertsona normal bat.

Zer du Baztanek beratar bat jaio-territik mugiarazteko?

Nire emaztea Iruñean ezagutu nuen, baina baztandarra da eta haurdun gelditu zelarik Baztanera etorri ginen bizitzera.

Zenbat rubik kubo dituzu etxean?

60 inguru, mota eta forma guztietakoak (borobilak, hirukiak, karra-tuak...) batzuk txapelketakoak eta bertzeak kolekzionatzeko.

Noiz eta nolatan osatu zenuen lehenbiziko rubik kubo?

Duela bi urte, ileapaindegi batean kubo osatzen zuenari opari bat ematen ziotela ikusi nuen. Oparia lortu arte saiatu nintzen eta afizionatu. Skewb kuboarekin duela 10 hilabete hasi nintzen eta txapelketetan urte eta erdi daramat.

Eta zenbat dituzu osatu gabe?

Momentu honetan bi bakarrik

dauzkat, oso zailak direlako.

Zein da sekretua?

7 pauso jarraitu behar dira, baina garrantzitsuenak gogo eta pazientzia aunitz izatea da.

Rubikeko kuboarekin zer ibili behar du arinago buruak edo eskuek?

Biak behar dira oso arinak, baina burua aurretik ibiltzea kalte ez.

Eta egunerokoan?

Burua. Ongi pentsatu behar dira gauzak egin baino lehen.

Tokiz kanpo dagoen zein pieza jarriko zenuke bere tokian?

Gaur egungo egoera ikusita, politikari aunitz jarriko nituzke bere tokian.

Bete litekeen amest bat?

Skewb kuboarekin munduko errekorra lortzea.

Eta utopiaren bat?

Amets gehienak, lan eginda, lor litezke. Ez dago ezinezkoa den ezer.



Julio PERUGORRIA → Rubik kuboak osatzen errekorra

sarobe
gozotegia okindegia
pº de eztegará 25 bajo
31780 Bera (navarra) t.948 63 08 99
www.sarobe.net

MARITX
Legia, 23-BERA Erakusketa, Proiektu eta
T. (0034) 636 617 450 Instalazio Elektrikoak

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 · BERA

BEHOBIA
Pneumatikoak eta zerbitzuak
Marka guztietako gupilak
nitrogenoarekin puztea dohainik
Mekanika orokorra
(olio aldaketa, frenoak, distribuzioak,...)
Alineazioak
Europa kalea, 18 - ZAISA I (Behobia) IRUN
Telf: 943 63 56 01 E-mail: pneumatikosbehobia@gmail.com

LARRALDEA
eta
LINDDURRENBORDA
Baztan Bidasako sagardotegiak
Dolarea
Txotx denboraldi irekiera urtarilaren 23an
Eskualdean egindako sagardoa
LARRALDEA | Telleria auzoa · LEKAROZ | 948 452121 · 626 494317
LINDDURRENBORDA | Nabaz auzoa · LESAKA | 948 637212

zalain
JATETXEA RESTAURANTE
Zalain Auzoa z/g
31780 Bera
t. 948 631 106
w. www.zalain.info

BERA

GIZARTEA → MARTXOAREN 18AN

Martikoko langileek 10 Tona produktu eman dizkiote Elikagai Bankuari

Opor egun bat baliatu zuten produkzioa egiteko

TTIPI-TTAPA

Martiko enpresako langileek 10 Tona produktu eman zizkieten martxoaren 18an Nafarroako Elikagai Bankuari. Joan den otsailaren 26an elkartasun eguna egin zuten Martikon, eta langileek opor egun bat erabili zuten pate, mousse eta ahate-konfita bezalako produktuen 10 Tona produzitzeko.

Gregorio Yoldi, Nafarroako Elikagai Bankuko presidenteari eman zioten egun hartan produzitutakoa eta honek erran zuenez, gaur egun 34.900 erabiltzaile ditu bankuak. Martikoko langileen ekimena eskertu zuen, «behar gehien duten pertonekin, lanik ez dutenekin, gizarte bazterketa jasaten dutenekin eta oinarritzko beharrak ase ezin dutenekin elkartasun handia erakutsi dutelako». Urteko eta pertsonako 121 kilo janari banatzen omen ditu Elikagai Bankuak.



Ba al zenekien

Orkatza ehizatzeko hiru prezinto zozketatuko dituela Ehiza eta Arrantza Elkartek martxoaren 29an, 20:00etan. Interesatuak izena eman behar dute tabloian eta saridunek 30 euro ordaindu beharko dituzte prezintoa hartzeko.



UTZITAKO ARGAZKIA

60 bat musikari bildu ditu Klarinete Topaketak

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolak antolatutako Klarinete Topaketa burutu zen martxoaren 5ean, Kultur Etxean. Bera, Irun eta Beasaingo Loinatz Musika Eskola eta Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioko ikasleekin batera, Sequenza laukoteak jo zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Goldatz Emakume Feminista Taldearen Aste Morea bikain

Goldatz Berako Emakume Feministak Taldeak antolatu duen Aste Morea programaren baitan, martxoaren 12a izan zuten egun handiena. Bertso bazkaria izan zuten Zalain jatetxean Onintza Enbeita eta Nerea Elustondorekin. Ondotik, triki-poteoan ibili ziren. Gauerditik aitzinera, DJ Rakaraka eta DJ Maikarmens Katakua ostatuan. Aste Morea martxoaren 4ko pintxo-pote morearekin abiatu zuten; hilaren 5ean zoru pelbikoari buruzko tailerra egin zuten, martxoaren 8an kontzentrazio zaratzatsua Mukixu zubian eta martxoaren 11n, Susa-naren iraultza antzezlanak ikusgai izan zuten ortziral arratsean Katakua ostatuan.

okaNe
HARATEGIA / URDAITEGIA
Enaut & Nekane
Kanttonberri 12 • BERA
Tfno/Fax: 948 630 018

ERANDONEA, s.l.
BILTEGIA 948 630 102
ANDER 687 736 929
Bidasoa, 76 - atea 21-22
31780 BERA

E D A R I A K

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.: 948 63 10 27 - Fax: 948 62 52 11
tabernabera@gmail.com
www.tabernaedariak.com

K SAT
TELEKOMUNIKAZIOAK

- TDT instalazioak
- TB instalazioak (satelite, lurrekoak)
- Instalazio indibidualak eta kolektiboak
- Satellite bidezko internetak

ANDONI LASAGA APEZTEGUIA · T. 637 40 86 40 · 31780 BERA · andonimabaxako@gmail.com

GIZARTEA → MAIATZAREN 31 BITARTE

Bestetako programaren azal lehiaketa deitu du Kultur Batzordeak

400 euroko saria izanen du irabazleak

TTIPI-TTAPA

Bestak prestatzen hasiak dira Beran. Martxoaren 15ean egin zuten lehen bilera irekia eta orain, bestetako egitarauaren azalerako lehiaketaren deialdia zabaldu du Berako Kultur Batzordeak. Lanak maiatzaren 31 arte (aste-arte) eguerdiko 13:30 baino lehen aurkeztu beharko dira Herriko Etxeko Bulegoetan gisa honetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz eta sari bakarra izanen da, 400 eurokoa, baina saria hutsik ere geratzen ahal da.

Nahi duen guzikiak parte hartu ahal izanen du lehiaketan, eta nahi berte lan aurkeztu ahal izanen ditu. Azalak Berako besta giroa islatuko du. Azalean *Berako Bestak 2016* testua agertu beharko da nahitaez eta ez du bertzelako testurik eramanen.

Formatuari dagokionez, argazkia edo irudiak kolorezkoak izanen dira, ez da diapositibarik onartuko, paperean aurkeztuko da, eta bertikala izanen da, 18x27 cm.koa.

Mus txapelketa

Gure Txokoako mus txapelketan 18 bikotek eman zuten izena eta Etxalarko Jose Antonio Aginagalde eta Joseba Santesteban suertatu ziren txapeldun. (200 euro eta ardo lotea); azpitxapeldunek, Jokin Rico eta Teresa Igoa senar-emazteek, bi afari Zalainen eta ardo lotea; hirugarren sailkatuek, Joxe Mari eta Jon Zelaieta Altxurik, bi afari Zubiondon eta ardo lotea eta laugarrenek, Mikel Ibarra eta Jon Santesteban etxalartarrek, Martiko produktuen bi lote eta ardo lotea. Gure Txokoako bazkide den bikote onenak bi afari Xugan eta ardo lotea izan zuen saritatz eta Angel Pombar eta Zapik irabazi zuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

1.500 lagun sartu dira Bidasoaldeko Salgai Hondarren Feriara

Denok Bat Federazioak bigarren aldiz antolatu duen Bidasoaldeko salgai-hondarren feria burutu zuten Toki Ona kiroldegian martxoaren 5 eta 6an. 29 komertzio eta zerbitzuren eskaintza ikusteko eta erosteko 1.500 lagun bildu ziren. Igande arratsaldean 300 euroko bonoa zozketatu zen feriar joandakoen artean eta Arantzako Sagrario Telletxea suertatu zen saridun.



UTZITAKO ARGAZKIA

Jon Abrilen 'Neskatoak' dokumentala aurkeztu dute

Bortzirietako Berdintasun Batzordeak martxoaren 8ko Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira antolatutako ekitaldien artean nagusia egin zuten martxoaren 6an. Jon Abrilek zuzendutako *Neskatoak* dokumentalaren aurkezpena egin zuten Kultur Etxean eta jendetza bildu da ikusentzuneke ederraz gozatzera. Jon Abril zuzendariarekin batera, dokumentaleko protagonista diren emakumeak ere izan ziren ekitaldian. Herrian ez ezik, martxoaren 12an Arantzian aurkeztekoa zuten dokumentala. Aitzinetik, martxoaren 8an Hondarribian ere eman zuten eta ondotik, martxoaren 16an Donostian, martxoaren 18an Ataunen, martxoaren 23an Etxalarren eta apirilaren 16an Zugarramurdin.

F. LANCHAS
Akutxiladorea eta bernizatzailea
Parket eta parket flotatzailea
jartzea
Mota guztietako zolak
Tel: 948 630 735 M: 607 406 781

Alberto RETEGI
abokatua
© 948 630 763 · Altxate, 17 · BERA

BAR Botxo OSTATUA
Zalain • BERA • 948 630 052

LESAKA

GIZARTEA → HORNIDURA ETA ALTZARIAK INSTALATZEKO LEHIAKETA DEITU DU NAFARROAKO GOBERNUAK

Liburutegia Sanferminetarako egon daiteke Harriondoan

18.000 bolumenak lekuz aldatzea Udalak hartuko du bere gain

Aitor AROTZENA

Kultur Etxea egin zenetik, Udalaren asmoa izan da Herriko Etxeko hirugarren solairuan dagoen liburutegiko 18.000 bolumenak Harriondoan hutsik dagoen gelara eramatea. Hori gauzatzeko lehen urratsa eman du Nafarroako Gobernuak, lokal berriko hornidura eta altzariak instalatzeko lanen lehiaketa deitu baitu. Hasierako aurrekontua 47.400 eurokoa da eta eskaintzak aurkezteko epea martxoaren 21ean bukatu da.

Jose Luis Etxegarai alkateak aipatu digunez, «18.000 bolumenen leku aldatzea ez dago sartua deialdi honetan eta trasladoa udalak egin beharko luke». Eskaintzak aurkeztuta, hilabete bat beharko da lanak emateko eta behin hornidura lanak emanda, bi hilabeteko epea izanen dute hornidura eta altzariak jartzeko. Hortaz, udalari gustatuko litzaioke Sanferminen inguruan liburutegi berriaren inaugurazioa egitea.



ARGAZKIA: JON MARTINEZ

Ikastolako neska-mutikoak Haur kantarien jaialdian

Orkoiaren egindako Nafarroako Haur Kantarien jaialdiko lehen saioan parte hartu zuen Tantirumairu ikastolako LH2ko talde honek ((Beñat Etxepare, Amauri eta Ainitze Martinez, Laida Taberna, Hegoi Silveira, Katixa Madariaga eta Beñat Zelaia). Urkoren Guk euskaraz, zuk zergatik ez? abestu zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Berdintasunaren Ginkanan sarituak

Lesakako Zerbitzuen Elkarteak antolatutako Berdintasun Ginkanan 70 marrazki aurkeztu zituzten herriko neska-mutikoek. Nora Maritxalar, Izaro Ugaldere eta Ane Agirre suertatu ziren saridun, 150, 100 eta 50 euroko erosketa bonoekin.

FLASH

Oinarrizko argazki digital ikastaroa

Oinarrizko argazkigintza digital ikastaroa eskainiko du bigarren urtez Irantzu Pastor argazkilariak apirilean eta maiatzean, Beti Gazte elkarteak antolatuta. Zortzi klase Harriondoan Kultur Etxean eskainiko dituzte astelehenetan, 19:30etik 21:30era eta praktikak egiteko 4 orduko irteera egingen dute (20 orduko ikastaroa). Apirilaren 5a arte eman daiteke izena (689285535, Jon Martinez).

Sanferminetako kartel eta azalak

Sanferminetako kartel, azal eta gibeletako azal lehiaketara aurkeztutako lanak ikusteko eta bozkatzeko aukera izanen da martxoaren 24tik apirilaren 3ra Harriondoan.

APIRILAREN 2AN

Gazte Eguna ekintzaz betea

A. AROTZENA

Gazte Asanbladak Gazte Eguna antolatu du apirilaren 2rako. 9:00 Gosaria Buruztanka Gazte-txean. 9:30 Diana Gaztetxeko Buruhandi eta erraldoekin Lesakako Gaiteroen laguntzaz. 10:30 zirko tailerra Plazan. 12:00 Anoetako Gaztetxeko eta Debagoienako Bertso eskolakoei ongi etorria 12:30 Sormen sukaldaritzako lehiaketa. Sukaldatzen ez dutenak poteoan joan dira Lesaka eta Debagoienako bertsolariekin. 14:00 bazkari autogestionatua 5 eurotan (lehiaketan parte hartu eta norberak prestatutakoa bazkaldu) edo Buruztanka Menua. Arrano ostatuan apuntatzeko azken eguna martxoaren 30a da. 17:00 Gazte Jokuak. 19:00 Elektropoteoa TTEK elektrotxarangekin. 23:00 Iseoren kontzertua. Ondotik Dj Loro. Kontzertuak ostatu ezberdinetan izanen dira.

ZUBIONDO
Jatetxea
sagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TEL: 948 625 474

IRU BIDE
Erretegia · Asador
Burrana, 3 · Lesaka
Tel: 948 637 127

- Lentzeria
- Bainujantziak
- Mertzzeria
- Jantzi tipikoak
- Peñen blusak
kattagorria
lentzeria mertzzeria
Behoko plaza 10 31770 Lesaka
T. 948 627 514

JAJONE-COXOTEGIA
948 630 786
Altzate, 21 · BERA

GIZARTEA → MARTXOAREN 21ETIK 28RA

'Usoak sarean' erakusketa zabalik da Kultur Etxean

Irene ELIZAGOIEN

Martxoaren 18an aurkeztu zuten erakusketa, bideo proiektio eta solasaldi batekin eta martxoaren 21etik 28ra bisitatzeko aukera izanen da goizetan 11:00etatik 13:00etara eta arratsalde 5etatik 7etara. Bertan usazaleen azalpenak entzuteko aukera izanen da. Martxoaren 26rako bi ekitaldi aurreikusita daude, batetik goizeko bisita gidatua Usategietan eta bertetik arratsaldeko 5etan paleta egite erakustaldia kultur etxeko atarian. Erakusketa materiala salgai ere egonen da.

Neskatoak dokumentala

Martxoaren 23an, arratsaldeko 7etan Jon Abrilek zuzendutako *Neskatoak* dokumentala egonen da ikusgai Kultur Etxean. Dokumental honetan, Frantziara neskato bezala joandakoen testigantzak biltzen dira, tartean etxalartar batzuenak.

Argazkiak ikusgai Zentroan

Joan den urteko irailaren 13an Pello Apeztearek omenaldia egin zitzaion 50 urte bete zituako herrian apez. Egun hartan Eliza inguruan ateratako argazkiak ikusgai egonen dira Zentroan apirilaren

3an eta 10an meza ondotik.

Altxata elkarte urteko batzar orokorra

Apirilaren 2an izanen da Altxata elkartearen urteko batzar orokorra, 19:00etan.



ARGAZKIA: AMAIA ZELAIETA

Gazteak sagardotegira

Martxoaren 5ean Etxalarko gazteak Hernaniko Elorabi sagardotegira joan ziren. Egun berean Larraburua jubilatuen elkarteokoa Irungo Ola sagardotegian egin zuten bazkaria.



Ba al zenekien

Berako Gure Txokoa elkarteak antolatutako mus txapelketan Jose Antonio Aginagalde eta Joseba Santesteban txapeldun izan zirela eta Mikel Ibarra eta Jon Santestebanek laugarren postua eskuratu zutela.



ARGAZKIA: MARI LUZ ARIZTEGI

Mus tximista

Martxoaren 6an jokatu zen Larraburuan Arkupeak antolatzen duen mus tximista. Jesus Arribillaga eta Txomin Aranburu izan ziren txapeldun, bigarren Jose Martin Zelaieta eta Benantxio Elizagoien eta hirugarren Santiago Olasagasti eta Joxe Mari Olagarai. Ardoa eta gasnak izan zituzten saritzat.



UTZITAKO ARGAZKIA

Urdaizpiko ederrak txapelketako sari

Martxoaren 13an egin zen Larraburuan mus eta partxis txapelketako sari banaketa. Musean lehenengo postua Periko Berrueta eta Jose Luis Arretxeak eskuratu zuten. Partxisean, berriz, txapeldunak Pakita Danboriena eta Kandida Elizalde izan ziren.

KAGU LIBURUDENDA

Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- LIBURUDENDA
- KOLORETAKO FOTOKOPIAK
- USBtik EGINDAKO INPRIMAKETAK
- ESKANERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGORAKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

BORTZIRI

UNSION ANAIK

Erakusketa: **Bereau Etxea** LESAKA Nafarroa
T. 948637266 M. 607226891
bortzirialtzari@telefonica.net

ARANTZA

MENDIA → MENDIARI ESKAINITAKO ASTEBURUA

I. Mendi Lasterketa eta XV. Mendi Itzulia maiatzaren 14an eta 15ean

Lasterketan 200 partaideren muga paratu dute

Nerea ALTZURI

Aitzineratu bezala, maiatzaren 13tik 15era mendiarekin loturiko hainbat jarduerak izanen ditugu herrian:

MAIATZAK 13, ORTZIRALA
• Bideo emanaldia izanen da ilunabarrean.

MAIATZAK 14, LARUNBATA
• Goizean, **Arantzako I. Mendi Lasterketa** eginen da. 16,5 kilometroko luzera eta 1.200 metroko malda duen ibilbidea izanen da eta korrikalariak Illurdi, Ekaitza eta Ibintzako kaxkoetatik pasako dira. Udalak lasterketako lehenbiziko hiru emakumezko eta gizonetzkoentzat sariak emanen ditu. Ekaitzatik pasatzen den lehen Bortzrietako herritarrek Xabier Zubieta saria jasoko du. Izena emateko epea zabalik dago eta www.menditzulia.com

edo www.kirolprobak.com-en egin daiteke. Parte-hartzaile kopuruan muga paratu dute eta 200 lasterkari onartuko dira.

- Arratsalde, **puzgarriak** izanen dira haurrentzako.
- Ilunabarrean, mendi lasterketen inguruko **solasaldia** izanen da Aritz Egea eta Oihane Kortazar lasterkariekin.

MAIATZAK 15, IGANDEA
• Arantzako XV. Mendi

Itzulia izanen da herria inguratzen duten mendietan barna. Ibilbideak 26 kilometro inguru ditu eta 1.600 metroko malda. Zinez, inguru paregabeekin gozatzeko aukera, mendi zirkua osatuz. Egunean bertan edo

aitzinetik ere izena eman daiteke www.menditzulia.com web orrian.

Aipatutako webgune horretan aurkituko duzue mendi itzuliari eta lasterketari buruzko informazio osatua.



Ba al zenekien

Joan den martxoaren 5 eta 6an, Denok Bat elkarteak Beran antolaturiko Baztan-Bidasoko aukeren ferian 300 euroko erosketa bonoa Sagrario Telletxea aranztarrak eraman zuela?



ARGAZKIA: AITZIBER LIZARDI

Gazteak sagardotegian

Joan den martxoaren 12an sagardotegira ateraldia antolatu zuen Gazte Asanbladak. Egun ederra pasatu zuten.

FLASH

Ekaitza Elkarteko junta berria

Martxoaren 5ean, Ekaitza Elkartean junta berria osatu zen. 48 bazkidek eman zuten botoa eta kide hauekin osatu da batzorde berria: Julen Oskoz, Idoia Etxeberria, Amaia Apaolaza, Andoni Mitxelena, Aitziber Almandoz, Maitere Pagola, Gaizka Almandoz, Imanol Lukanbio, Xabier Etxague eta Juanita Larraalde.

Argazkilaritza ikastaroa

Irantzu Pastor argazkilaria lesakarrak apirilaren 2, 9, 16, 23 eta 30ean, oinarrizko argazkigintza digital ikastaroa emanen du Baskulan. 09:30etik 13:30era izanen da, eta teoria eta praktika landuko dituzte. Prezioa 80 eurokoa da. Izena emateko edo informazio gehiagorako: 605 763687 edo irantzupas@gmail.com.

Mariatxi gaua

Larunbat honetan, martxoak 25, Txamukos mariatxi taldeak bere lehenbiziko diskoa aurkeztuko du Aterpen. 21:00etan afari musikatua izanen da eta ondorengo musika giroan segiko dute. Afarirako txartelak Aterpen edo 948 634179ra deituta.

aterpe
albergea jatetxea ostatua

T. 948 634 179
ARANTZA
www.arantza.net

ola
SAGARDOTEGIA
www.olasagardotegia.eus
102 Meaka auzoa · 20304 IRUN · Tfnoa 943 623 130

Bertako sagarrarekin egindako sagardoa

- 250 lagun eserita
- Klimatizatua
- Sagardotegiko menua

TXOTX GARAIA IREKIA

Bidasoa
GASOLINDEGIA

A, B eta C motako GASOLIOA ETXERA 24 ORDUZ

Alkaiaga Industrialdea, 4. LESAKA · T. 609 446 693

KATEA BIKE

BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA.

Eta orain, GIMNASTIKA ETA FITNESS MAKINAK, bizikleta estatikoak lasterketako zintak ...

Kanttonberri 1, BERA
kateabera@telefonica.net
948 631 218

MASSIMO ORBEA MERIDA SCOTT BH



ARGAZKIA: A. AROTZENA
Elite mailako irteera, tartean Mikel Urtxegi herritarra.

KIROLA → MARTXOAREN 13AN

430 kirolari bildu ditu II. Gladiators Day probak

Mikel Urtxegi herritarra 8. izan zen elite mailan

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 13an egin zuten Irrisarri Land-en Gladiator's Day lasterketa berezi eta gogorraren bigarren edizioa. Denera 430 kirolari bildu ziren, joan den urteko lehen edizioko kopurua ia hirukoiztuz. 7 kilometroko ibilbide-

an 25 oztopo gainditu behar izan zituzten kirolariek.

Horien artean izan zen Mikel Urtxegi herritarra ere. Joan den urtean lortutako hirugarren postuari esker, elite mailako proban ateratzeko aukera izan zuen, lehen txandan. Aurtengoan podiora igozterik izan ez badu ere, zortzigigarren sailkatu zen. Joan den urtekoa baino gogorragoa izan dela onartu du Urtxegik,

eta maila handiagoko kirolariak etorri direla. Halere, gustura zegoen eta errepikatzeko gozoz.

Elite mailan Alejandro Remón Ochoa nagusitu zen (37:53) eta Jose Maria Resanok (38:20) eta Aitor Condek (39:27) osatu zuten podiuma. Emakumezkoetan, Marta Moreno izan zen bizkorrena (51:57), Silvia Lopez (55:42) eta Eider Lopez aitzinetik (57:03).



UTZITAKO ARGAZKIA

Enaitz Telletxea txapeldun buruz buru

Bortzirietako eskuz banakako pilota txapelketaren final gehienak igande honetan jokatzekoak ziren Lesakan. Baina kadete mailako finalistak ikasbidean ateratzekoak zirela eta, martxoaren 11n jokatu zuten kategorian horretako finala Berako Eztegarra pilotalekuan. Enaitz Telletxea herritarra 18-12 irabazi zion Mikel Eltzaurdia beratarrari. Herrira etorriko den txapel bakarra izanen da, igande honetan jokatu beharreko finalerako ez baitzen Igantziko bertze ordezkarik.

Ba al zenekien

Igande honetan Berriozarren jokatzekoa zen Nafarroako Herri Kirol Jokoen finalerako sailkatu dela herriko talde bat kimu mailako proba konbinatuan. Igantziko hiru neska mutikok Aratziri taldean parte hartu dute, haurren kategorian, eta horiek ere finalerako sailkatu dira.

Haur guztiak amesten dute Jaunartzea

- Palacio de Yrisarrin eta Jolastoki Taberna menu aukera zabala
- Txikientzako jarduerak dohainik
- Pailazoen ikuskizuna aukeran

Informazio gehiago: T. +34 948 928 922 • www.irrisarriland.eu • Igantzi. NAFARROA

Tri Sarri LAND

BORTZIRIAK

GIZARTEA → GIZARTE ZERBITZUEN ESKUTIK

Tratu Onaren Sarea hedatu nahi dute gizarte arlo ezberdinetan

Orain artean, familia, haurtzaroa eta nerabezaroaren arloan egin den lana bertze lan-ildo batzuetara zabaltu nahi da

tutako arloan eta arrakasta handia izan du, familia, haurtzaroa eta nerabezaroari lotutako gaitan. Orain, lan-ildo hori zabaltu eta estrategia berriei ekin nahi izan zaie.

«PREBENTZIOAREN IKUSPEGITIK DIMENTSIO ZABALAGOA»

Proiektu hau Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak bultzatu du: «Gure borondatea da dimentsio zabalagoa ematea, prebentzioaren ikuspegitik. Bortz herrietan dauden potentzialitateak eta ahalmenak identifikatzen lan handia egin dugu, gure interes zentroak zein diren aztertu eta eskualde mailan, prebentzio arloaz erabatu dezakegun ikusiz. Alternatiba ezberdinak aztertu eta iruditu zaigu lan mahai hori berregituratu behar zela eta datozen urtetarako Bortzirietan Plan Integral batean bihurtu».

Ilusioa eragiten duen helburu handia da eta «Gizarte Zerbitzuetatik ueste dugu gizarte zailtasunei aurre egitea errazago dela denok batera lan egiten badugu, bakoitza bere aldetik lanean arituta baino». Gaur egungo gizarte eta

TTIPI-TTAPA

Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak deituta, Bortzirietako 25 profesional eta gizarte eragile bildu ziren martxoaren 2an Lesakako Harriondoa Kultur Etxean. Hilabeteotan errealitatearen azterketa egin ondotik, etorkizunerako ekintza lerroak diseinatu behar direla azpimarratu dute, 2016-2020 Lan Planaren oinarritzko ildoak.

Profesional horien helburua Bortzirietan ahalik eta ongizate maila handiena lortzea da, hezkuntza, osasuna, udal langile eta bertzelakoen arteko jarrera kolaboratzaileak lortuz. Sareko lan hori gainbegiratzeko kanpoko aholkulari tekniko bat ere etorri zen.

Bortzirietan Sareko Lana duela zortzi urte ezarri zen, baina bakar bakarrik haurtzaroari lo-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Bortzirietako Emakumeen VII. Mendi Martxa

Bortzirietako Oinarritzko Jendarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako Emakumeen VII. Mendi Itzulia Beran egin zuten martxoaren 13an eta 75 emakumek baino gehiagok hartu zuten parte. Mukixu zubitik atera ziren, lehenagotik, *Berdintasuna gizarte osoari mesede egiten dion giza eskubidea da* eta *Martxoak 8 egunero, zu ere beharrezkoa zara zioten pankartak hedatu eta gero*. Beratik Elorlepora joan ziren eta hamaiketakoaren ondotik, zazpigarren eta zortzigarren mugetan barna lbardinetik beheiti jautsi ziren Berara eta berriz ere kontzentrazioa egin zuten. Mendizale hauetatik 26 bat gelditu ziren Zalainen egingdako bazkarira eta giro ederrean ibili omen ziren.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Nafarroako Solaslagunak Linddurrenborda sagardotegian

Nafarroako mintzapraktika egitasmoaren baitan, martxoaren 5ean izan zuten hitzordua berriz ere Nafarroako hainbat Mintzlagun eta solaslagunek. Dagoeneko hirugarren ikasturtea dute eskualdetik eta Iruñeritik Lesakarat etortzen direla, Linddurrenbordarat, sagardo goxoa giro onean dastatzera. Bazkarian arras giro onean ibili ziren; solasean, elean, mintzoan, hitz egiten... bakoitza berean. Kantatzera ere ausartu omen ziren poeta batzuk eta ongi moldatu gainera. Ondotik herrirat jautsi eta giro onari eutsi zioten Lesakan.

familia egitura berriek gizarte loturaren garrantzia erakusten dute eta hortaz, «tokiko gizarte

sareak sortu eta indartzeko beharra» azpimarratu dute.

Azken finean, garai

bateko auzolana lan modu bezala berreskuratu nahi da gizarte harremanen arloan.

GIZARTEA → MARTXOAREN 11N EGIN ZUTEN BISITA

Eskola berriaren premia bertatik bertara ikusi dute parlamentariak

93 ikasle hartzen ditu gaur egun, araudiz kanpo dauden bi eraikinetan banatuak

Maidor PETRIRENA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza komisioak eskola bisitatu zuen martxoaren 11n, instalazioak ikusteko. Amets Inda alkateak eta Marta Mariezkurrena eskolako zuzendariak azaldu zien eskola bi eraikin ezberdinetan zatituta dagoela; behetiko eraikinean Haur Hezkuntzakoak daude,

29 ikasle. Goiko eraikinean berriz, Lehen Hezkuntzakoak, guztira 64, denen artean 8 unitate sortuz. Bieraikinak araudiaz kanpo daudela eran beharra dago. Bisitaren helburua eskolako eraikinen baldintzak zuzen zuzenean ikustea izan da: arazo estrukturalak (isolamendua, segurtasuna, irisgarritasuna), baita leku falta ere klaseak behar bezala emateko.

Eskola berriaren eskaeraren informea aurkeztzen den hirugarren legealdia da. Txosten horretan argi adierazten da arriskua: patio babesturik ez daukatela (honek eguraldi txarra denean ikasleek gelan egon be-



ARGAZKIA: NAFARROAKO PARLAMENTUA

Parlamentariak, eskolako neska-mutikoekin, martxoaren 11n egindako bisitan.

harra eragiten du), soinketa egitera frontoira joan behar dutela eta dutxak ez daudela behar duten egoeran. Jangelaz berbitzua ere frontoiko ostatuan ematen da eta zerbitzu hori gaur egun erabiltzen duten 47 haurrek ez daukate lekurik behar bezala egoteko. Eskolan egin daitezkeen berrikuntza eta haunditzeak agorturik daude eta aurreko legealdiko Hezkuntza Departamentuak eskola berriaren beharra ikusten zuela onartu zuen eta, beraz, oraingoak ere be-

har hori berrestea espero dute.

Parlamentariak paupatu zutenez erantzuna ahalik eta abudoen ematen saiatuko dira.

Amets Inda alkateak, bere aldetik, gai hau bizkortzea eskatu zuen «eskola berria egiteko zeuden bederatzi lekue-tatik egokiena, garestiena ere bai baita». Lursailaren nagusiak ez daude ados eta jabetza kentzeko prozedura ireki beharko litzateke. Udala plan berria egiten ari da eta horretarako proiektuak aurrera egi-

ten duen edo ez jakin beharra du, herriarentzat zor haundia suposatuko duelako.

Sunbilla bizirik dagoen herri bat dela ere gogorazi die alkateak «800 biztanle ditu, baina agian gehiago ere izan zitzakeen zerbitzuak eskainiko balitu. Gaur egun 59 familiek osatzen dute eskola eta denak eskola berria egitearen alde daude.

Komisioak eskola berriaren premia ikusi du eta Gobernuari egoeraren berri emateko konpromisoa hartu du.



ARGAZKIA: BIDAS IBARRA

Ulibeltzak mendi taldea Xabiererra

Martxoaren 12an Ulibeltzak Mendi taldeak irteera egin zuen Xabiererra. Guztira 23,5 kilometro egin zituzten. Irunberri, Arangoiti, Leireko monastegia-Esan bazkaria eta Xabiererra. Argazkian ageri denez, elurretan ibili behar izan zuten.

FLASH

IV. Pintxo Astea martxoaren 24tik 27ra

Aritzgain, Bustitz, Fonda eta Iturburu ostatuek Pintxo Astearen laugarren edizioa antolatu dute martxoaren 24tik 27ra. Pintxoak dastatu eta botoa ematen dutenen artean, urdaiazpiko bat eta bi botil ardo zozketatuko dituzte martxoaren 28an, 12:00etan Bustitz ostatuan.

Ramon Latasaren omenaldiko zozketak

Ramon Latasaren omenaldia akitzerakoan zozketak egin ziren. 5 kilo txuleta Donamariako Beñat Lazkanori tokatu zitzaizkion, 20 litro sagardo (Ola sagardotegikoak) Juanito Jorajuria sunbildarrari; Bi bildotsak berriz, bata Aiako Patxi Irigoieni eta bertzea berriz, Felix Espelosin herritarrari.

Talo jatea eta monologoa

Bustitz Ostatuan martxoaren 11n talo jatea eta Etxenikeren monologoak ikusgai izan zituzten. Jende aunitz hurbildu zen bietara eta antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete guztiei.

DONEZTEBE

GIZARTEA → MARTXOAREN 25 ETA 26AN

Hirugarrenez Sagardo Egunak antolatu dituzte

Doneztebarrak
elkarteko
komertzioak
ere karrikara
aterako dira
Aste Santuan

Marga ERDOZAIN

Doneztebarrak Merkataritza eta Zerbitzu elkartek Aste Santuko asteburuan ekimen hau antolatu du, bertakoei eta gurera etorriko diren turistek txotx egiteko eskaintza luzatuz. Amezti, Irrintzi, El Café, Mikelo, Pepa's, Shanti eta Titi ostatuek pintxoak eta sagardoa 2 eurotan eskainiko dituzte bi egun hauetan. Belarra eta Santamaria jatetxeen sagardotegi-ko menua dastatzeko aukera izanen da.

DENDAK KARRIKETARA

Doneztebarrak elkar-tereko dendariak ere sa-

gardo egun hauekin bat egin eta euren komertzioak karrikara aterako dituzte. Hori dela eta, alde zaharreko trafikoa moztuko dute martxoaren 25 eta 26an, dendariak lanean lasai aritu eta bisitari eta bezeroei erosketak erosotasun osoz egiteko aukera emanez. Gainera, karrikak alaitu eta giro-tzeko txaranga bat ere ibiliko da herrian barna besta doinuak zabalduz.

**BISITARIAK JASOTZEKO
PREST**

Aste Santuko opor-rrak pasatzera etorriko direnek Sagardo Egunaz gain, ederki pasatzeko beste aukerak ere izanen dituzte. Bertako ostatu eta landetxeen okupazioa %100ekoa izatea aurreikusten da. Eta kanpotik etorritakoei tokia utziaz, bertako asko ere kanpora joanen dira. Ea eguraldia lagun izaten dugun.

UDALAR URTEAN ZEHAR

10 bat langile kontratatuko
dituzte hainbat lan burutzeko

M. ERDOZAIN

Kopuru horretatik 6 kontratatuko dira gobernuak udeletxeei ematen dien diru-laguntzari esker. Horietatik 4 herri lanetan sei hilabetez ariko dira (bi apirilean hasita eta bertze bi ekainean hasita). Bertze bat turismo bulegoan ariko da eta seigarrena igerilekuan eta kiroldegian (langile hau gizarte zerbitzuak jarraitutako irizpidea kontuan hartuta kontratatuko da, RIS delako errenta jasotzaileen hautagaiengandik. Horietaz gain, udan langile hauek kontratatuko dira: igerilekurako sorosleak, igeriketako irakaslea eta ludotekarako arduraduna.



UTZITAKO ARGAZKIA

Saray elkarteari babesa emateko lilaz jantzi zen kiroldegia

450 lagunek parte hartu zuten elkartasun ekimen honetan. Kantxan ziren ia 200 partaideek koreografia ederrak eskaini zituzten armailetan ziren ikusleen gozamenerako. Saray elkarteak 1.400 euro bildu zituzten sarrerekin, gehi udalak emandako 150 euroko ekarpena. Diruaz gain, kamisetak, pinak, eskumuturrekoak, lepokoak... denetarik saldu zituzten Saraykoek. Parte hartu zutenak, Saray elkarteak kideak, zuntz bateko antolatzaileak eta Udaleko Emakume eta Berdintasun zinegotzia den Leire Ortuosterekin familia argazkia polita eta aldarrikapenez bete zuten: *Berdintasuna atzo, gaur eta etzi* lelopean egin baitzuten.



UTZITAKO ARGAZKIA

575 lagunek ikusi zuten 'Ene kantak' ikuskizuna kiroldegian

Kiroldegian era askotako emanaldiak antolatu dira baina Ene Kantak emanaldiak argazki zoragarri aunitz utzi ditu. Argazki guzti horietan txikitxoan poza ageri da. Dantza, txaloak, koreografiak... denetatik bizitu zituzten egun horretako protagonistek. 575 lagunek kiroldegia bete zuten. Hitzordu hori antolatzeko lanetan boluntario aunitz, lan isila eginez. Ene Kantaren izenean mila esker denei. Mila esker lagundu duten guztiei eta baita Berako udalari ere kiroldegia estaltzeko azpiegitura uzteagatik.

APIRILAREN 2AN

Liburutegiak egoitza handitu du

M. ERDOZAIN

Udalak toki handitze honekin liburutegiak duen toki eskasari arazoari irtenbidea eman nahi dio. Horretaz gain zerbitzuak hobetu nahi ditu. Horretarako erakusketa gelako tokia erabiltzea erabaki du, bertan apalategiak jarri. Txukuntze lan hauekin CDUko liburuak erakusketa aretora mugitu dira. Betiko tokian haur eta gazteen txokoa, helduen narratiba, bideoteka eta ofimatika zerbitzuak berrantolatuko dira.

**Ba al
zenekien**

Ekainaren 25ean Benito Lertxundi abeslari handiaren emanaldia Doneztebeko Ezkurra frontoian izanen dela. Apuntatu agendan, aperitibo ezin hobea 2016ko San Pedro bestetarako.

GIZARTEA → APIRILAREN 9RA BITARTE

Herriko Ostatua errentan hartzeko epea ireki dute

Moldaketa lanak bukatu ondotik

Martin BERTIZ

Bukatu da Barbara-ren etapa herriko ostatuaren kudeatzaile bezala. Baina bizitzaren erlojua ez da gelditzen eta eskola ondoan dagoen tabernak herriko elkarlekua izaten segi dezan, maizter berria bilatzen hasiak dira.

Moldaketak bukatu dituzte (pintatu, etxetresnak berritu...) eta ireki da epea interesatuta leudekenak informazioa eskatzeko. Astearteak eta asteazkenak 17:30-etik 18:30 bitartean, Herriko Etxea irekita egonen da galderak erantzuteko. Azken eguna, apirilaren 9a izanen



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Eskaintzak egiteko epea apirilaren 9an amaitzen da.

da. Ostatua, jangela, barra, sukalde eta komu-

naz osatua dago. Gibelean aterpea eta errete-



ARGAZKIA: MARTIN BERTIZ

Seinale berriak jarri dituzte plazan

Gogotsu hasi den kontzeju berriak seinale berriak jarri ditu plazan. Batetik, eskolara doazen haurrak kontutan hartzeko adierazten duena eta bertetik frontoian ezin dela aparkatu.

2016 udaberriko kolekzio berria



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea



edredoi fundak • albornoak • edredoi nordikoak • ohe estalkiak • maindireak • mantelak • kuxinak • toaillak
Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

ARKUPEAK



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Guateke taldeak girotuko du bazkalondoa

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 21EAN

Euskal Kantuen Jaia ospatuko dute bazkideek Dantxarinean

340 lagunek
eman dute
izena

Fernando ETXEBERRIA

Apirilaren 21ean Euskal Kantuen jaia ospatuko da Dantxarinean. 340 pertsonak eman dute izena, datu aipagarria oso, Ibañeta eta Sunbillan berriki antzeko bestak ospatu dituzte la jakinda.

Eguerdiko ordubatean hasiko da besta, Venta Peion. Jatetxera sartzeko aurrez erositako txartela aurkeztu behar du guztiek. Egitaraua lau zatitan banatu dute: hasteko, ordu batez, euskal kantu sorta ezaguna abestuko da (liburuxka bat banatuko da bertan). Gero Guateke taldeak emandako eskainiko du eta hauen ondotik, berriz ere euskal kantuak

abesteko aukera izanen da. Bukatzeko Joxe Angel arituko da akordeoiarekin giroa jartzen, iluntzeko zortziak arte.

Iturenen delegatua behar da

Izaskun Bazterrika izan da azken urteetan Arkupeak Elkarteko Iturenko ordezkaria eta orain kargua uztea erabaki du. Postu hau betetzeko, interesa daukan edozein boluntario aurkez liteke. Bide batez, Zuzendaritza Batzordeak lerro hauek baliatu nahi ditu Izaskuni egindako lan txukuna eta eskainitako denbora eskertzeko.

Erakusketa Doneztebeko Herriko Ostatuan

Emakumeen egunaren harira, martxoaren 11n, herriko zenbait



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Xabiererra irteera

Martxoaren 8an 119 bazkide joan ziren Xabiererra. Ezkurra eta Leitzatik abiatu zirenek elurra izan zuten bidelagun, baina Lekunberritik aurrera eguzkia izan zen nagusi. Aurten meza auditorioan egin beharrean Basilikan izan zen. Javier jatetxean bazkaldu zuten guztiek eta bazkalondoa dantzaldia izan zen Joxe Angel akordeoiariarekin. Hurrengo ateraldia Donostiara izanen da eta 292 bazkidek dagoeneko eman dute izena. Donostiako kaleetan barna buelta bat eman, Alde Zaharrean pintxo eta tragoxkaren batzuk hartu eta Aginaga sagardotegian bazkalduko dute. 13:30ean abiatuko da autobusa Bulebarretik Aginagara.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Biriatutik Berara mendi irteera

Martxoaren 15ean, 31 mendizalek egin zuten Biriatur eta Bera arteko ibilbidea, eguraldi eguzkitsua lagun. Goizean goiz Berako Zalain jatetxearen aparkalekuan hartu zuten Biriatura joateko autobusa eta bertatik goizeko bederatzieta hartu zuten Ibañerako bidea, Jose Mari xerparen gidaritzapean. Ibañeraren ordu erdiko geldialdixoa egin eta gero, Zalainera bueltatu ziren eta bazkari ederra egin zuten bertan, urteak betetzen zituen Kaskanta zorionduz. Preziki bera izanen da apirilaren 19an Leitzan eginen den ateraldiko gidaria.

emakumeek egindako eskulanekin erakusketak osatu zen Donezteben. Argazkian ikus liteke Lolik egindako Doneztebeko armaria. Hogeita hamar kolore baino gehiagoko hariak

erabilita egin du eta urtebetez, egunero hiru ordu aritu da lanean.

ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA
Lolik eskuz egindako Doneztebeko armari ikusgarria.



33. IDAZLEEN BILTZARRA → MARTXOAREN 28AN

Gazteek eta euskarak toki haundiagoa izanen dute Sarako Idazleen Biltzarrean

Itxaro Borda eta Michel Iturria izanen dira omenduak

TTIPI-TTAPA

Berrikuntzekin iraganean da aurtengo Sarako Idazleen Biltzarra. Orain arte, Sarako Turismo Bulegoak kudea-

tu izan du literaturaren hitzordu hau, baina aldi honetan, Sarako Biltzarra izenarekin sortu duten elkarteak bere gain hartu du antolaketak. Bi helburu nagusi finkatu dituzte: gazte gehiagoren erakartzea eta euskarari toki handiagoaren eskaintzea. Hala, ikastola, eskola publiko, eskola katoliko,



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Pantxoa Etxegoin (Euskal Kultur Erakundea), Jean Michel Garat eta Daniel Laplacette, Sarako Idazleen Biltzarrean aurkezpenean.

kolegio eta lizeotako 200 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute.

Horrez gain, biltzarrari eskainitako lekua bikoiztu egin dute eta lau gune prestatu dituzte: erakusketa artistikoen txokoa, liburu

berriak dohainik kontsultatzekoa, haurren txokoa (animazioak, ikusgarriak, tailerrak, irakurketak, ipuinak... izanen dira) eta mintzaldi eta hedabideei eskainitakoa.

Gainerakoan, 11 argitaletxe, 22 elkarte eta

ehun idazlek baino gehiagok parte hartuko dute Sarako Biltzarrean. Omenaldien tartean, berriz, Itxaro Borda idazlea eta Michel Iturria marrikilaria omenduko dituzte.

Sartzeak bi euro balioko ditu.

EUSKALTZAINDIA SARAKO BILTZARREAN:

Euskal Literaturaren Antologia 1: Erdi Arotik Errenazimentura lanaren aurkezpena



AURKEZLEAK:

Andres Urrutia euskaltzainburua

Karlos Otegi lanaren koordinatzailea

Jon Casenave literatura batzordeko kidea



ELGORRIAGA

GIZARTEA → HERRIKO ETXEA

Bestetako komisiaon parte hartzeko deia egin dute

Azken bileretan jende gutti izan dela eta kezka azaldu dute

Mattin LARRALDE

Herriko bestetako komisia lanean hasia da eta gogorazi nahi izan dute komisia hau herriko jende guztia idekia dagoela. Izan ere, azken bileretako parte hartzea ikusita, badirudi gazteak eta udaleko zinegotziak bakarrik arduratu behar dutela besten antolaketaz. Bestak egon daitezzen denen parte hartzea beharrezkoa delako, komisiaon parte

hartzera animatu eta ideiak emateko gonbidapena luzatu dute. Ea denon artean, besta egiteko behintzat herria batzea lortzen dugun.

Zuhaitzen eguna

Hasiera batean otsailaren 28an egitekoa zen arren, elurra eta euria gogotik ari zuenez, gibelatu egin zuten besta. Martxoaren 13an egin zen azkenean eta denborak ere lagundu zuen. Goizeko 9:30 aldera gelditu eta zuhaitzak landatzen ederki pasa zuten guraso eta haurrek. Gero, indarrak hartzeko gosaritxo izan zen elkartean.



ARGAZKIAK: M. LARRALDE

Emakumeen eguna

Emakumeen eguna martxoaren 8an izan arren, Elgorriagan zertxobait beranduago ospatu zuten. Ortziralek arratsean bildu ziren emakumeak mahai baten bueltan afaldu, berdintasuna eskatu eta genero indarkeria behingoagatik buka dadila aldarrikatuz. Gora zuek!

TALLERES SANTESTEBAN, Ongi etorri!
Baztan - Bidasoako Renault Zerbitzu ofizial
 bakarra gara orain. Zure kotxeak behar duen guztirako, etorri gurera.

RENAULT ocasión **alquiler**
 de vehículos comerciales

SERVICIO POSVENTA Renault
 Renaultek gomendatzen du **elf**

TALLERES SANTESTEBAN, S.A. Leitzako Errepidea, 80. Tel. 948 450 282. 31740 DONEZTEBE

ZUBIETA

GERTAERAK → EMAKUMEAREN EGUNAREN HARIRA

Berdintasunaren aldeko argazkiak herritik ere

Joaldunek eta Herriko Etxeko langileek parte hartu dute

Fermin ETXEKOLONEA

Malerekako Mankomunitateak antolatutako ekimenean ere parte hartu dute inguruko hainbat talde, erakunde eta langilek. Berdin-

tasuna bihar eta etzi lema eskuetan hartuz argazki batzuekin montai bat osatu zuten. Zubietako joaldunak, Zubietako eta Iturengo Herriko Etxeetako langileak... atera dira argazkietan.

Beste aldetik, Emakumeen afaria egin zuten martxoaren 12an Herriko Ostatuan. 21 emakume bildu ziren eta gustora egon ziren.



Solaslagunak

Herrian 4-5 lagunek solaslagun taldetxo bat biltzen da astero, Edorta Murua buru dutela, elkarrekin euskaraz mintzatzeko.

Aste Santua

Txitxillo elkarteak Aste Santuan, eguraldiaren arabera, ekintzaren batzuk antolatzeko asmoa du (mendi iteera-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Joaldunak eta langileak, argazkietan berdintasunaren alde.

ren bat...). Guraso eta hurrei abixatuko zaie eguna hurbiltzen denean.

ITUREN

GIZARTEA → ADIBIDE PRAKTIKOAK EMAN ETA ZALANTZAK ERE ARGITU ZITUZTEN

Argindarraren fakturan aurreztu eta ulertu ahal izateko tailerra

Miren Olaetxeak ea Maria Arretxea eskaini zuten

Arkaitz MINDEGIA

Goienar Energia beirritagarrien kooperatibako kideek tailer interesgarri bat eman zuten Abarun aterpetxean. Miren Olaetxea eta Maria Arretxea izan ziren hizlariak eta kontsumo alternatiben inguruan solasteaz gain, adibide praktikoa eman eta zalantzak ere argitu zituzten.

Bertaratu zirenei euren argindar fakturak eramateko eskatu zieten eta horiek aztertu eta ulertzeko argibideak eta aholkuak eman zituzten.

Emakumearen eguna

Aldarrikapen eta ospakizunerako tartea izan da. Egunean bertan ez baina asteburuan afari baten bueltan bildu ziren herriko emakumeak. Martxoaren 11n Abarun aterpetxean 16 emakume elkartu ziren. Bertetik, herriko bortz emakumek parte hartu

zuten Donostialo 27. Litaloian.

Nafarroako Haur kantarien jaialdia

Nafarroako Haur Kantarien jaialdian, iaz bezalaxe, herriko zenbait hurrek parte hartu dute. Beriozarren ospatu zen kanporaketa eta Menda Eskolakoek, Aurtiz, Sunbilla, Oronoz, Legasa eta Arizkongo ikasleek azken hilabeteetan ikasitako kantuak abestu eta dantzatu zituzten. Hainbat talde aritu ziren, tti-kietatik hasi eta gazte-

txoak arte: Ene kantak, Esne zopak, Miren Amuriza eta Arzallusen kantak... abestu zituzten bertaratu zirenen gozamenarako. Laister jaikingo dugu baten bat sailkatu ote den azken jaialdirako.

Berako Zahar Etxean kantari

Iker Gorosterrazu eta Alazne Untxalo herriko bertsolariek, Bardoak txapelketan parte hartzea bukatuta, kantuan segitzen dute. Berako Zahar etxeko Kulturastean kantatu zuten.

'TA MALERREKAN ZE'

Feminismoa lantzeko tailerrarekin abiatu dira jardunaldiak

A. MINDEGIA

Malerekako Gazte Asanbladak hainbat eta hainbat ekintza antolatzen ditu urtean zehar. Orain, martxotik ekaina bitarte, *Ta Malerrekan ze?* jardunaldiak antolatu ditu. Iturenen egin zuten lehenbiziko ekitaldia martxoaren 18an, Herriko Etxeko ganbaran. *Feminismoa jorratzen* tailer praktikoa egin zuten Emagin elkar-teko kideekin.

ARESO

OSPAKIZUNA → MARTXOAREN 11N

Giro bikainean ospatu dute emakumeen eguna

Datorren urtean martxoaren 8an bertan zerbait antolatzea proposatu dute

Juana Mari SAIZAR

Azken urteetako ohi-turari eutsiz, Leitza eta Aresoko emakumeek elkarrekin ospatu dute Nazioarteko Emakumen Eguna. Martxoaren 8an, eguerdian elkartu ziren herriko emakume batzuk zerbait hartzeko baina ekitaldi ofiziala martxoaren 11n izan zen: film emanaldia eta segidan afari autogestio-

natua egin zituzten. *Coria eta Itsasoa* dokumentala izan zen ikusgai, emakume sahararren istorioa biltzen duen filma. Emanaldiaren ondoren, Pake Toki elkartera joan ziren denak afaltzera. Afari autogestionatua izan zen eta behin bapo afalduta, giro ederrean egon ziren afalondoan. Datorren urtean, martxoaren 8an bertan zerbait antolatzea ere proposatu zuten.

AFARIA ASTE SANTUAN

Aste santuetako larunbatean, herriko emakumeek afaria egiteko ohitura dute. Aurten Lei-



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Pake Toki elkartean, leitzar eta aresoar emakume kuadrila polita bildu zen afaltzeko.

tzako Musunzar ostatuan elkartuko dira eta bertara joan nahi duenak Sastinen eman dezake izena.

Dantza ikastaroa

Aste santu ondoren hasiko dira biltzen dantza taldekoak herriko festetako emanaldia prestatzeko. Izen emateko epea bukatu bazen ere, norbaitek dantzan hasi nahiko balu badu aukera, dantza taldekoei esanda.

BURDINA TALDEKOAK ETA HERRITARRAK

Ulizar inguruan indusketa lanetan ari dira

TTIPI-TTAPA

Areson, belaunaldiz belaunaldi, ahoz aho kontatu izan den historia eta istorioetan Ulizar ingurua aipatu izan da behin eta berriz. Inguru horretan Inkisizioak eta Konbentzio gerrak aztar-na utzi zutela pentsatu izan da beti eta uste horiei tiraka, duela hiru urte inguru, Burdina taldeak ikerketa bat abiatu zuen herrian. Bi ikergai nagusirekin ari dira lanean geroztik, Ulizarko antzinako koba eta Santa Kruz ermitaren ingurua ikertuz. Burdina taldeko arkeologo, historialari eta boluntarioak, herriko boluntarioekin batera aritu dira lanean eta bidean egin dituzte aurkikuntza garrantzitsuak: Brontze aroko ontzi bat (2014an) eta Erdi aroko txanpon txiki bat berriki.

UDABERRIAN EMAN NAHI DIOTE BUKAERA PROIEKTUARI

Proiektua bukatzeko, azken indusketa lanak egin eta Santa Kruz ermitaren ingurua txukuntzea falta da eta horretarako udaberrian berriro ere lanean hasteko asmoa dute (eguraldiak hobera egiten duenean). Horretarako, herritarrei ere auzolanean, parte hartzeko deia luzatu nahi zaie. Aurrerago deialdien berri zehatzago emango da.



ARANO

GIZARTEA → DATOZEN HIRU URTERAKO

Zuzendaritza aldaketa egin dute San Roke elkartean

Lourdes, Kristina eta Markos dira bazkide berriak

Ainhoa ANSA

Martxoaren 5ean egin zuten San Roke elkartean urteko batzarra. Kontuen errepasoa egin eta bazkide berriak sartzea ere onartu

zuten: Lourdes Legarreta, Kristina Ursua eta Markos Moseguez.

Zuzendaritza aldaketa egitea ere adostu zuten. Joxe Mari Leonetek (lehendakaria), Kontxi Klaberrek (idazkaria) eta Maitane Legarretak (diruzaina) lekukoa eman diete datozen hiru urteetan kargua beteko dutenei: Bixente Elorza izango da lehendaka-

ria, Ramon Galparsoro idazkaria eta Lourdes Legarreta diruzaina. Bokalak ere aldatu dira.

Emakumeen eguna ospatzeko

Coria eta Itsasoa dokumentala proiektatu zen martxoaren 10ean ganbaran Goizueta eta Aranoko Berdintasun batzordeak antolatuta.

GIZARTEA → IZEN-EMATEA MARTXOAREN 21ETIK APIRILAREN 8RA

Kirol azpiegiturak kudeatzeko lanpostu deialdia egin du udalak

Sortu berri duen enpresa publikoa zuzentzeko

JM BARRIOLA

Udalak, gerente plaza bat betetzeko hautaketa prozesua martxan jarriko du. Izen emateko epea martxoaren 21ean hasi eta apirilaren 8an itxiko da. Ondoren apirilean zehar hainbat froga burutuko dira pertsonarik egokiena aukeratzeko asmoz. Lanpostuaren ezaugarrien eta hautaketaren oinarrien zehaztasun guztiak Udaltxeko tabloian zein www.leitza.eus web orrian eta, Kiroldegiko iragarki-taulan publikatuko dira.

Kudeaketa modua aldatuta, enpresa publikoak lortuko lituzkeen etekinak inbertsioetarako baliatzea da asmoa.



UTZITAKO ARGAZKIA

Hainbat emanaldi eskaini dituzte Aralar musika eskolakoe

Otsailaren 29an hasi eta martxoaren 4ra arte Aralar udal musika eskolako audizio kontzertuak izan dira. Leitza, Jauntsarats, Larraintzar, Betelu eta Lekunberrin eskaini dituzte saioak eta zazpi urtetik gorako 323 ikaslek parte hartu dute. Emanaldi hauen helburua ikasleen motibazioa areagotzea da eta instrumentu bakoitzak duen potentzialitatea zein erreperitorio propioa entzulengoari ezagutaraztea. Talde instrumentaleko 120 ikasle, akordeoia, pianoa, trikitixa, perkusioa, gitarra, txistua, zeharkako xirula, saxofoia... denetarik entzuteko aukera izan da.

MARTXOAREN 20AN

‘Paulina’ pelikularekin eman diote bukaera zinema denboraldiari

JM BARRIOLA

Udalak emandako laguntzari eta herriko boluntario batzuk egiten duten lan txukunari esker, urtez urte pelikulak ikusteko aukera izaten da gure herrian. Duela 50 bat urte eraiki zen zine aretoa eta oraindik ere, ederki betetzen du bere funtzioa. Aurtengo denboraldian ere, mota guztietako filmak ikusteko aukera izan da,

arrakasta izan duten atzerriko pelikulak, euskal filmak, haurrei zuzendutakoak edo helduentzat... Martxoaren 20an eman zioten amaiera denboraldiari Santiago Mitre zuzendariaren *Paulina* pelikula argentinarrarekin. Orain, hurrengo denboraldia hasi arte, antzerki, musika, bertso... emanaldiak izanen dira areto zaharrean.



UTZITAKO ARGAZKIA

Errigoraren olio kanpaina

Nafar hegoaldeko uztia eskutik eskura lelopean, Nafarroako olio ekoizleei bultzada emateko kanpaina egin du Errigorak. LeitzEKO kontsumo taldea izan da herrian ekimena bideratzeaz arduratu dena eta erantzuna ona izan da: Leitza eta Areson 190 olio ontzi banatu dira, 950 litro. Euskal Herrian 5.000 familiek parte hartu dute eta 75.000 olio litro banatu dituzte.

UDALAREN EKIMENEZ

Turismo ereduari buruz gogoeta egiteko prozesua abian

JM BARRIOLA

Leitzako Udalak herriko turismo eredua aztertu nahi du sektoreko eragile eta herritarrekin batera. Horrela herriak dituen balibideen inguruan hausnartu eta egon litezkeen aukera posibleak, indargune zein arrisku eta ahulguneak aztertu nahi dituzte. Horrekin batera, bertako ekonomia bultzada eman eta herriarentzat jasangarria izango den norabide bat marraztea ere bada gogoeta hauen helburu nagusia. Horretarako lehenbizikoa hitzordua martxoaren 17an egina zuten eta sektorearekin harreman zuzena duten eragile eta herritarrei bertaratzeko deia egin zieten. Bilera horren ondotik, gogoeta prozesuaren baitan eman beharreko hurrengo pausoak zehazten joateko asmoa zuen Udalak.

FLASH

Euskal Herria Mendi Erronka

Ekainaren 4an izanen da Euskal Herria Mendi Erronkaren IV. edizioa. Handia izan da, hasiera hasieratik, proba honen inguruan sortu den ikusmina eta aurtengoan ere, 750 dortsalak berehala agortu dira. Otsailaren 28ra arteko epea zuten dortsala eskuratu-takoek ordainketa egiteko. Ordaintzen ez dutenek tokia galdu eta itxaron zerrendakoei deituko zaie.

GOIZUETA

GIZARTEA → MARTXOAREN 9AN BILDU ZEN

Komunikazio Batzordea sortu du Udalak

Itsaso Lujanbio zinegotziaren bueltan, komunikazio alorra indartu eta herritarrek elkarlanean aritzeko asmoz

TTIPI-TTAPA

Udaleko komunikazio alorra indartu eta herritarrek elkarlanean aritzeko asmoz, komunikazio batzordea sortu da Itsaso Lujanbio komunikazio zinegotziaren bueltan. Batzordea sortzearen helburua, taldean pentsatu eta taldean erabakiak hartzearen aldeko apustua egi-

tea da, herritarren parte hartzea sustatu eta lanak banatuz.

Martxoaren 9an egin zen lehen bilera eta komunikazio arloaren ardatz nagusitzat herritarrei informazioa garrantzuz emanez, udala eta herritarren arteko gertutasuna bilatzea eta herritarrei herriarekiko interesa piztea markatu zituzten. Horretarako, tresna garrantzitsuak dituzte eskura: Goizueta informatzen aldizkaria, web orri berria (www.goizueta.eus), eskualdeko komunikabideak... Elkarlanean, tresna hauek indartu eta beste batzuk sortzeko konpromisoa hartu zuten.

APIRILAREN 23AN

Gasolindegia eta kooperatiba sortzeko bigarren bilera

TTIPI-TTAPA

Herrian gasolindegia eta kooperatiba sortzeko bigarren batzarra eginen da apirilaren 23an, larunbat goizeko 11etan eskolako jangelan. Bileran honetan inkestaren emaitzak agertuko dira, baita azaldu diren galdera eta zalantzak, kooperatibaren estatutoak, kooperatiba sortzeko lehen urratsa...

Hain zuzen, lehenbiziko batzarrean eta inkestetan azaldu diren zalantzei dagokienez, kokapena (gasolindegia Asinkon edo San Antongo belasoan egin), kontu ekonomikoak (zenbat kostako litzakeen gasolindegia egitea, kooperatibako kide izateko zenbat ordaindu behar den, betebeharrak eta onurak, gasolindegia zorrak egiten baditu kooperatibako kidea zorraren kargu egiten ote den...) eta bestelakoak (gasolindegia ezinduentzat prestatuta jarri al daitekeen) azaldu dira.



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Afari batekin borobildu dute Emakumeen Eguna

Emakumeen Nazioarteko Egunaren borobiltzeko 41 emakume bildu ziren martxoaren 8an Umore Ona elkartearen eta giro ederrean afaldu zuten, gizonezkoak sukaldari eta zerbitzari zituztela. Aurretik, martxoaren 6an, Coria eta itsasoa filma ikusteko aukera izan zuten Udaletxeko ganbaran. Emakumearen Eguneko ospakizunak apirilera ere ailegatuko dira Goizuetan. Apirilaren 9an, Ines Bengoa helduentzako ipuin kontalariak ipuin erotikoak kontatuko ditu 19:00etan Umore Ona elkartearen.



UTZITAKO ARGAZKIAK

Aitor Aizkorbe, Antton Apezetxea eta Iker Salaberria txapeldun

Ez dira txapelak lortzen aspertzen herriko pilotariak. Kadete mailan, Euskal Liga irabazi du Umore Onako bikoteak. Martxoaren 6an jokaturako finalean, Aitor Aizkorbe eta Antton Apezetxeak 22-11 irabazi zieten Arrasateko Murua eta Eguiren-i. Iker Salaberriak, bere aldetik, otsaileko bidean segitzen du txapelak pilotatzen. Azkena, martxoaren 15ean lortu zuen. Sorluzeko lau eta erdiko txapelketaren finalean 22-19 irabazi zion Azpeitiko Alberdiri, 0-10 galtzen hasi ondotik.

NEKAZARITZA-ABELTZAINITZA → APIRILAREN 2AN ELIZONDOKO ARIZKUNENEAN

Transformazio esperientziak Jardunaldia-Mintegia eginen dute

Hiru ekoizlek solasaldia eskainiko dute eta ondotik mahaingurua eginen dute

TTIPI-TTAPA

Transformazio esperientziak Jardunaldia-Mintegia eginen dute apirilaren 2an Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean, Baztango Udalak eta Cederna-Garalurre elkarteak antolatuta. Hainbat helburu izanen ditu jardunaldi honek: Esperientzia berriak ezagutzea, bertakoen interesa piztea, harremanak bultzatzea, horrelako egitasmo eta ekimenen zailtasunak ere agerian jartzea, bertako ekoizle eta eraldatzailen esperientziak ere ezagutzea eta Nafarroako Gobernuako teknikarien eskutik prozedurak, legedia eta tramitazio bideak ezagutzea, bertzeak bertze.

Egitarrari dagokionez, apirilaren 2an, larunbat goizeko 11etan eginen dute aurkezpena eta 11:15ean Euskal Xerriaren inguruko esperientzia azalduko du Aldudeko La Filière Basque/Euskal Xerria elkarte ordezkariek. 12:20ean bigarren so-



UTZITAKO ARGAZKIA

Arraioztarrak laugarren Euskal Herriko mus txapelketan

Euskal Herriko mus txapelketaren zortzigarren edizioko final nazionala Zube-roako Urdiñarben jokatu zen martxoaren 5ean. Baztan-Bidasotik lau bikote joan ziren, bi Erratzutik eta Arantza eta Arraioztik bana eta ezin erran esku hutsik bueltatu zirela. Arraiozko Aritz Alunda eta Garikoitz Larretxea laugarren izan ziren eta 500 euroko saria eskuratu zuten. Nafarroa Behereko Mañex Mouesca eta Martzel Calderon isturiztarrak izan ziren txapel-dun, finalean Ibarrekolan-dako Iñaki Perez eta Juanma Lopez bizkaitarrei irabazita. Hirugarren postura-ko lehian, Nafarroa Garaiko bi bikote aritu ziren eta Burlatako Evaristo Marti-nez eta Isidoro Jimenezek irabazi zieten Arraiozko Aritz Alunda eta Garikoitz Larretxeari. Aipatu behar da zortzigarren postua Bereau eta Duperou Senpereko bikoteak lortu zuela.

lasaldia izanen da, Maskilu Kontserbak, Bizkai-ko Zeberioako kontserbera kolektiboaren esperientzia azalduz. 14:00etan parte-hartzaileentzat bazkaria izanen da eta bazkalondan, 16:00etan hirugarren solasaldia eskainiko du Kantabriako Güemeskp Campoberry, S.L Neka-

Ba al zenekien

Baztango Artisauen Azoka martxoaren 24 eta 25ean goiz-arratsaldean eginen dela Elizondon.

zal Elkarteko ordezkariek. 17:00etan mahai ingurua izanen da Nafarroako Gobernuako Landa Garapen Departamentuko, Intiako eta Cederna Garalurreko

teknikariak eta Hazitik Hozie elkarteko kideren bat edo gehiagoren (ekoizle eta eraldatzai-le) parte hartzearekin. 18:30ean bukaera ekitaldia eginen dute.

APIRILAREN 15A ARTE

Baztandarren Biltzarra kartel lehiaketa zabalik

TTIPI-TTAPA

Baztandarren Biltzarra. Baztanen eskuara barra-barra. Elizondon, 2016ko uztailaren 17an. Testu hori eraman behar duen kartel lehiaketa abiatu du aurten ere Baztandarren Biltzarra Elkartek. Apirilaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak. Gisa hauetako lehiaketetan ohikoa den sistema erabiliz, egun horretan elkartaren esku egon beharko dute.

27,9x42 zentimetro izan beharko duten kartelak (A3) Arizkunenea Kultur Etxera igorri beharko dira (Jaime Urrutia kalea, 1 solairua; 31700 Elizondo). Lehiaketa irekia eta zabaladenez, parte-hartzaileek nahi adina lan aurkez ditzakete.

Sariduna, berriaz, apirilaren 18tik aitzinerat emanen da ezagutzera. Kartel bakarra aukeratuko du epaimahaiak eta honek 600 euroko saria jasoko du Baztandarren Biltzarra egunean, uztailaren 17an, hain zuzen. Dena den, epaimahaiak kartelak ez aukeratzea ere erabaki dezake.

Uztailaren 18tik aitzinerat, parte-hartzaileek beren kartelak berreskuratu ahal izanen dituzte antolatzaileekin harremanetan jarritz.

Edozein zalantzetarako baztandarren-biltzarra@hotmail.com helbidera idatzi behar da. Baztango kultura bulegoa soilik lanak biltzeko puntua izanen da.

Pierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Iturriotz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

BORDALARRA
Carnes Sein Haragiak, S.L.
Industrialdea, 27 • MAFRIDO ERAIKINA • DONOSTIA
Tel. 943 467 244 943 467 444 • Fax. 943 473 726 • carnessein@bordako.com

BAZTAN

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 1EAN ELIZONDON

Aharirik onenak sarituko dituzte Udaberriko Ferian

18. edizioa
beteko du ahari
lehiaketak

TTIPI-TTAPA

Aziendak, artisau lanak eta etxeko produktuak etxetik edo baseretik karrikara ateratzeko, apirilaren Baztanen egiten den hitzordu nagusia gainean da. Apirilaren 1ean, ortzira-lean, egingen da Udaberriko Feria Elizondon, Baztango Udalak eta Cederna-Garalur erakundeak antolatuta, Bertan elkartearen laguntzaz.

10:00etan azienda feria izanen da Merkatu Plazan. Ahari lehiaketaren hemezortzigarren edizioa ere egingen da. 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara artisautza eta bertako produktuen azoka paratuko da Foruen Plazan. 10:30ean txistula-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Baztango ahari dotoreenak plazaratuko dituzte apirileko lehen egunean Elizondon.

riak ariko dira karrikaz karrika. 11:00etan urteko ardi gasnaren mozketa ekitaldia egingen dute. 12:00etan Baztango dantzari ttiki-en saioa eta 12:30ean Baztan-Zopak dastatzeko aukera izanen da Merkatuko Plazan. 13:30ean ahari lehiaketaren sari banaketa egingen da leku berean.

17:00etatik 19:00e-

tara, haurrendako tailerra egingen da. Gainera, egun osoan, Bertan elkarteko komertzioetan Baztango Zaporen Ibilbidea eskainiko dute.

XVIII. AHARI LEHIAKETA

Aitzineko urteetan bezala Baztango Ahari Lehiaketa egingen da eta aurtengo XVIII. edizioa izango da. Oinarrietan

aipatzen denez, Baztango latxa arrazako buruak parte hartzen ahal dute eta sariak bi ataletan banatuko dira: hiru "mutur gorriendako" eta bertz hiru "mutur beltzendako". Bikasuetan, saria berdina izanen da: Lehengo saria, kaiku bat eta 75 euro; bigarren saria, 50 euro eta hirugarren saria, 30 euro.

FLASH

Ilargiaren eragina nekazaritzan eta udaberriko txertoak

Ilargiaren eragina nekazaritzan eta udaberriko txertoak ikastaroa eskainiko du apirilaren 3an Xabier Akizuk. Igandean, 09:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 18:30era. Izen ematea Arizkunenean egin behar da. Baztanen errolatuek 16 euro ordaindu behar dute eta errolatu gabekoek 22 euro. Gutierrez 10 lagun eta gehienek 15 onartuko dituzte ikastaroan eta ikasleek zerra eta txertoak egiteko aiztoak eramaten ahal dituzte.

Bailable bereziak apirilaren 3an Elizondoko plazan

Baztango Dantzariak eta Elizondoko Gaite-roek, Baztango udalaren laguntzaz antolatuta Bailableak (Muxikoak, Jotak, Larrain Dantza, Gaita...) izanen dira apirilaren 3an, igandean 12:45ean Elizondoko plazan. Oraingoan bereziak izanen dira, Artaxoako bandarekin batera.

GEROA BAI TALDEAREN PROPOSAMENA ONARTU DA

Ekonomia batzorde iraunkorra sortuko du Balleko Etxeak

TTIPI-TTAPA

Ekonomia batzorde iraunkor bat sortu du Udalak, Geroa Bai-ko udal taldeak hala eskatuta. Espazio horretan eskualdean eragina duen Ingurumenarekin (abeltzantza edo baso ustiapena), Merkataritzarekin, Turismo eta Industriarekin harremana duten aferak eztabaidatu eta bultzatzeko, bai eta alor horietan eskaintzen diren aukera ezberdinak lantzeko, eta, ahal bada, Nafarroako Gobernuari zuzentzeko.

«Jarduera ekonomiko urria, langabezia, lan prekarietatea, eskualdearen garapen eskasa eta despopulazioa direla

eta dagoen egoera zaila eta bailarako bizilagunen kezka ikusita, oso beharrezkoa deritzogu ekimen hau, Udalak bailararen jasagarritasunarekin eta etorkizunarekin konpromisoa hartzea bilatzen baitu», azpimarratu du Baztango Geroa Baik.

Udal taldearen iritziz, Udalak bailararen etorkizunaren alde eman beharreko lehen pausotako bat da batzorde honen sorrera, nahitaezkoa baita «bizilagunen bizi kalitatearen hobekuntzan eragina izango duen garapen ekonomiko handiagoa lortzeko beharrezkoa den interes eta esfortzua» egitea.

Bertzalde, Baztango Geroa Baik ai-

patu duenez, «orain gutxi proposamen ugari atera ditu aurrera, hala nola Arizkunenean wifi-a instalatzea, Lanbide Heziketarako zentroekin hitzarmenak aire zabalean gimnasioak instalatzeko hauek bailaran integratuz edo Udalak hainbat errefuxiatu familia hartzea eskatzea, bertzak bertz».

Batzar Nagusia dela eta, Geroa Bai-ko udal taldeak Mendi Garbiketa Plan bat eskatu du, bai eta bizilagunen eta Udalaren artean piketeak banatzeko modua aldatzea. Orain arte erdi eta erdi banatzen zen, eta orain bizilagunek hartzen duten 5 piketeko, 3 izanen dira udalarentzat.

GIZARTEA → UDAL ORDEZKARITZA MANU AIERDI PRESIDENTEORDEAREKIN BILDU DA MARTXOAREN 14AN

Belateko tunelen segurtasuna hobetzeko 7 milioi euro inbertituko dituzte

Beharrezko azpiegituren zerrenda aurkeztu zuten Florentino Goñi zinegotziak eta Joseba Otondo alkateak

TTIPI-TTAPA

Florentino Goñi Udaleko herri-lanetako zinegotzia eta Joseba Otondo alkatea Manu Aierdirekin Nafarroako ekonomigarapeneko lehendakariordearekin Iruñean bildu ziren martxoaren 14an. Bileran Baztanek joan den irailean eskatu zuen eta helburua bailarak dituen azpiegitura beharretaz aritzea zen.

Modu horretan Goñik eta Otondok beharrezkoak diren azpiegituren zerrenda helarazi zioten: Elizondoko sarrerako zubia, Lekaroz hilerriarekin lotzeko sai-hesbideren gainetik egin beharreko oinezkoen zaldaina, Ordokiko bigdegurutzeko biribilgune edo errotonda, Bear-tzuneko bidean zabal-guneak egitea eta Elizondorainoko Bide Berdeko tartearen finantziazioa. Aierdik Gobernuaren finantza egoearen berri eman zien, UPNren garaiko itzalpeko bidesariekin, adibidez, urtero 60 milioi euroko kostua dutela eta horrek departamentua aunitz estutzen duela. Beren lehentasuna, errepideen kontserbazioa

dela erran zuen eta proiektu berriak ondoko urteetako finantzen bila-kaerarekin lotu zituen. Konpromiso zehatzik ez zuen hartu.

Bertzalde, udal ordezkariak Belateko tuellei buruz galdegin zioten eta, Aierdik, ondoko hiru urteetan segurtasuna hobetzeko 7 milioi euro inbertituko dutela erran zuen; aurtan, 200.000 (elektrizitateko bigarren lerroa, estraktoreen berrikuntza...). Goñik eta Otondok N121A errepidearen segurtasunaz galdegin zioten eta Gobernuak errepidearen segurtasun eta arriskuen azterketa eta balorazio ekonomikoa eginak dituela erantzun zien, nahiz hobekuntza horiek noiz egingen diren ez argitu.

AROTEGIA ETA HERRI GALDEKETA

Azpiegiturretaz gain, Baztango hautetsiek bileran Aroztegiari buruzko gaia atera zuten. Manu Aierdiren kontseilaritzan Aroztegiako proiektua bulkatzen ari dela jakitun, Baztango alkateak PSIS gelditzea eta galdeketa egitea beharrezkoa dela erran zion, hori dela gehiagorik ari den gatazka sozial hau demokratikoki eta zentzuz konpontzeko bide bakarra. Hala ere, Baztanen etorkizuna guztiz baldintzatuko duen halako proiektua tokiko erakundearen eta herritarren gainetik PSIS bidez tramitatzea ez dela inondik ere onartzen ahal erran zion.



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztan-Zugarramurdi-Urdazubiko 1966ko kintoen besta

Baztan-Urdazubi-Zugarramurdiko 1966ko kintoen aurten 50 urte betetzen dituzte, eta Zugarramurdin ospatuko dute apirilaren 2an. Azketa jatetxean izanen da bazkaria. Autobusez gateko aukera izanen da, Elizondoko Menditik, 13:00etan autobus bat abiatuko baita. Izena emateko telefono hauetako batera deitu behar da martxoaren 26ra bitarte: 627 086 266 edo 608 999 393.

LANAK APIRILAREN 6RA BITARTE AURKEZ DAITEZKE

Berroetako Asteburu Kulturalako argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea ireki dute

TTIPI-TTAPA

Apirilaren 8 eta 9an Berroetako Asteburu Kulturala ospatuko dute, egitarau zabalarekin. Asteburua baino lehen, argazki lehiaketarako deialdia ere eginga dute eta apirilaren 6ra bitarte aurkez daitezke. Aurtengo lehiaketaren gaia natura da.

Lanak euskarri digitalean *berroetakoherria@gmail.com* helbide elektronikora edo inprimarutik (30x20 edo 20x15 cmko neurrian) Gure Ametsa elkarte postontzian aurkez daitezke.

Berroetako herrian antolatutako Kultur Asteburuaren egitaraua apirilaren 8an, ortziral arratsaldean hasiko da haurrentako tailerrekin. Ilunabarren euskal film baten emanaldia eskainiko dute Hegoalde elkartearen.

Apirilaren 9an, larunbata, 09:30ean



mendi bizikleta martxa egingen dute herriko inguruetan. 12:00etan paxaka izanen da, jokoari buruzko azalpena eta partida ttipi bat. 16:30ean xaboiaren erakustaldia, Elena Ezkurdia eta Elena Danborienaren eskutik. 19:00etan Saharan egindako bidaia-aren aurkezpena egingen du Karlos Garaikoetxeak. 20:00etan argazki lehiaketarako lanak ikusi eta sariak banatuko dituzte. Akitzeko, 21:00etan kantuzaharren afaria egingen dute, Santxotenak eta Pello Zabaltzak alaiturik.

BAZTAN

GIZARTEA → APIRILAREN 23AN

Herri galdeketa eta manifestazioa deitu ditu Aroztegia eta gero zer? Plataformak

Udalak eta Batzar Nagusiak herri galdeketa prozedura martxan jartzeko sinadura bilketa eginen dute

TTIPI-TTAPA

UGPSa gelditzeko eta herri galdeketa babesteko, apirilaren 23an Elizondoko plazan manifestazioan parte hartzeko deia egin du Aroztegia eta gero zer? Plataformak. Aldi berean, bai Udalak baita Batzar Nagusiak ere herri galdeketa prozedura martxan jartzeko sinadura bilketa eginen dute.

Aroztegia eta gero zer? taldeak azkeneko hilabete eta erdian bilerak egin ditu, aldaketaren gobernua babesten duten taldeekin zein tokiko administrazio erakunde ezberdinekin, «Aroztegiari buruz inposaketaren bitartez erabaki beharrean, Baztan mailako herri galdeketa lotesle baten bitartez erabakitzea aurkezteko helburuarekin».

UGPSa gelditzea Nafarroako Gobernuaren eskumena den heinean, bilera erronda Gobernu hau babesten duten taldeekin abiatzea erabakizuten. EHBildu, Podemos-Ahal Dugu eta Izquierda-Ezkerra alderdietako ordezkariak



UTZITAKO ARGAZKIA

Baztango Bilgune Feministak deitutako elkarretaratzea

Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, Baztango Bilgune Feministak deituta elkarretaratzea egin zuten martxoaren 8an Elizondoko plazan. *Hau ez da gure bakea! Feminismoa egiten gaitu herri* zioen pankartaren giblean hainbat herritar bildu zen, tartean Baztango alkatea eta zenbait zinegotzi. Euskal Herriko Bilgune Feministak idatzitako komunikatua ere irakurri zuten. Bertan aipatu zutenez, «Euskal Herrian burujabetza feminista eraikitzeko feministok kalean kontra-boterea artikulatzearekin batera, boterearen jabe izan behar dugu». Bertze aldetik, Bilgune Feministak egindako zozketaren zenbaki sariduna 3295 izan da.

riek Plataformaren proposamenaren aitzinean adostasuna erakutsi zuten arren, «Geroa Baik jarrera hertsia eta zakarra erakutsi zuela» jakinarazi du Aroztegia eta gero zer? Plataformak. «Alde batetik, UGPSaren erabakiaren izaera politikoaren ukazioan tematuta jarraitzen zuten. Bertze aldetik, Geroa Bai ordezkariek herri galdeketa egiteko mahai batean parte hartzeko prest zeudela zioten, beti ere Plataformak aldeaz aurretik, publikoki Geroa Baiko Gobernuak UGPSari buruz erabakirik hartu ez zuela onartzen bazuen. Plataformatik erantzun zitzaion agian Geroa Bairentzat ohikoa izan zitekeela herritarrekin gezurretan aritzea bai-

na Plataformak ez zuela horrelakorik eginen», adierazi du.

Tokiko administrazioei dagokienez, berriz, otsailaren 25ean Baztango Geroa Baik Oso-ko Bilkuran premiazko mozioa sartu zuen. Mozio horretan Udala, Aroztegia... eta gero zer? Plataformak Sustai Erakuntzarekin batera UGPSaren kontra jarritako helegitearen epailetan, Gobernuak hartutako erabakia defendatzea eskatzen zuten. Plataformaren erranetan, «hau da, Baztango tokiko autonomia defendatu beharrean, baztandarren erabakitze eskubidearen kontra agertzea». Mozio honek aitzinerat egin zuen Geroa Bai, UPN eta Auzolaneko udal taldeen al-

deko bozkekin eta EHBildu eta Baztango Ezkerraren aurkako bozkekin.

Gauzak horrela, Plataformaren ustez, nabarmen gelditu da «Geroa Baik herritarren nahia ezagutzeko eta errespetatzeko duen borondate eza. Erakutsi du, erosoago egiten zaiola kapitalismo neoliberalak bulkatzen duten eta epaitegiek zigortutako enpresari iruzurgileen interesak inposatzeari, Baztango gehengo sozialaren interesak defendatzea baino. Erakutsi du baita ere, erosoago dagoela erregimenaren planteamendu eta erabakitze modu inposatzaileak errepikatzen, demokrazia parte-hartzailea bulkatzen baino».



MARTXOAREN 19AN

Xorroxin Irratiak
35 urte bete
ditu

TTIPI-TTAPA

Xorroxin Irratiak 35 urte bete ditu martxoaren 19an. Ospatzeko, larunbatean irratsaio berezia egin zuten, entzuleen artean egindako inkesta, elkarrizketak, zuzeneko musika... Xorroxin Irratiaren 35. urteurrenaren harira, traola berezia ere erabiliko dute: #Xorroxin35

Honekin batera, laguntzaile kanpaina ere martxan dute.

35 urteotan aldaketa aunitz jasan ditu irratiak. Gaur egun, nahiz eta entzulego fina izan, Xorroxin ekonomikoki ez dago bere onenean. Erakundeetatik jasotako diru-laguntzak eten edo nabarmen murriztu dira eta ondorioz, duela lau urte langileen soldata %15 murriztu zen. Hau ez zen nahikoa izan irratiaren bideragarritasuna bermatzeko, hortaz, aurtengo 3. urteaz jarrarian, Xorroxin Irratiko langileak enplegu erregulazio espedientepean daude.

OSPAKIZUNAK → MARTXOAREN 13AN

Lezearen Eguna arrakastatsua izan da aurten

Lehen eta bigarren mailako final laurdenak

TTIPI-TTAPA

Lurpea elkarrekin antolatutako Lezearen Egunaren baitan, arkeologia esperimentaleko tailerra eskaini zuen Iñaki

Libanok. Aditu bizkaitarrak, silex materialarekin egindako hainbat erreminta sortzeko lanen erakustaldi bat egin zuen, hauen erabilera (bultzagailuak, brama-derak...) eta sua zuen Urdazubin duela 15.000 urte bezala.

Ikaburuko bisita gidaturako sarreraren prezioa % 50eko deskon-



UTZITAKO ARGAZKIAK

Arbasoen bizimodua erakutsi zuen Iñaki Libanok Ikaburuko leze barnean eta lorategian.

tua egin zuten egun horretan eta, aipatutako

erakustaldia doan eskaini zuen goizean, lka-

buruko haitzuloetako lorategian.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ugaranaren sagardotegiko ateraldi bikaina

Ugarana Emakume Elkarteak antolatuta, Astigarragako Petritegi sagardotegian afaldu zuten martxoaren 4an, Emakumearen eguna ospatzeko. Salbatore Plazatik atera zen autobusa, 22 emakumez osaturiko lagun taldearekin, gau ederra ospatu zuen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ehun lagun bildu ditu Virginia Imazen antzezlanak

Martxoaren 8ko ospakizunen artean, Ugaranak saio berezi bat antolatu zuen martxoaren 13an herritar guztientzat. Virginia Imaz, clown famatua herrian izan zen, Kultur Etxean eta 100 pertsona inguru bildu ziren antzerki emanaldia ikustera.

ANZABAL INMOBILIARIA



- Zurich Aseguruak Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala Errenta Deklarazioa, BEZa...
- Inmobiliaria Baserri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- Gestoria

Santiago, 15 • ELIZONDO • T./F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com



Pinturas

Iñaki Alzuyet margoak

Tel: (0034) 659 862 417
31711 URDAZUBI (Na)

FATXADAK,
BARNEALDEAK
eta
PLADURRA

pinturasalzuyet@yahoo.es

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → WWW.XARETA.EUS

Xaretako herrien berri ematen duen web orria sortu dute

Margari eta Koro

Xareta eremuko lau herrien berri biltzen duen web orria sortu dute eta martxoaren 9an egin zuten jendaurreko aurkezpena Sorginen Museoan.

Argazki ederrak eta informazio aunitz topa liteke bertan, modu arin eta erakargarrian. Bertzeak bertze, zonaldeko landetxe, jatetxe, museo, lezeak... agertzen dira, eta informazio hori errepasatzea gomen datu diete nagusiei, akatsen bat ikusiz gero, lehenbailehen zuzentzeko. Helbidea hau da: www.xareta.eus

Lezeen Eguneko argazki rallya

Martxoaren 12an ospatu zen Lezeen Eguneko argazki-rallyan 30 lagunek parte hartu zuten, batzuk Baztan-Bidasoa aldekoak, eta


bertze batzuk urrutixea-gotik etorriak, horien artean Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak.

Kategoria bakoitzeko irabazleen izenak apirilaren 7tik aitzinera jakinaraziko dituzte.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Sorginen Museoan aurkeztu zuten martxoaren 9an Xaretako herrien informazioa txukun biltzen duen webgune berria: www.xareta.eus



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Arrakasta polita izan du ilar-jateak

Arrakasta polita izan zuen aurtengo ilar-jateak, 36 lagun elkartu baitziren. Eta aipatzekoa da bazkariaren gain, kontzertu berezi bat ikusteko aukera ere izan zela: Joseba Irazoki aritu zen, eta ondotik Zokoako "Joujou duo" bikotea.

JATETXEA-ERRETEGIA
MONTXO
OSTATUA-TABAKO-DENDA

Egunero irekia
 09:00etatik
 02:30era

Dantxarineatik
 2 km.tara

PLATER KONBINATUAK • OGITARTEKOAK
 MENUAK ENKARGUZ • PINTXOAK
 ESPEZIALISTAK ARRAIN ETA TXULETOIAN

ANZAN-BORDA • URDAZUBI | 948 599 039
montxoblanco@gmail.com

VENTA PEIO

T. 902 210 800 • www.venta-peio.com

Bera (Administrazioa) 31780 BERA	Dantxarinea 31712 URDAX	Ibardin 31780 BERA	Luzalde 31660 LUZAIDE
-------------------------------------	----------------------------	-----------------------	--------------------------

tabac • prêt à porter • restaurant • supermarché • cadeaux • maroquinerie

OSPAKIZUNAK → APIRILAREN 2AN IBARRUNGO INHARREA BASERRIAN

‘Hiruka’ntuz’ leloarekin berriturik dator Senpereko Kantuaren eguna

Baxe Nafarroa, Zuberoa eta Lapurdiko kantariak gomitatuak dituzte

Franck DOLOSOR

...Kantuz ari gabe gu deusik ez gare! Larreko bertsulari zenaren hitzak orratza bezain zuzenak ziren eta lxtilar-teko nagusiak ongi asmatu zuen bertsua “Senperen kantuz” gure ereserkia indartzeko. Senperen kantuzalea suna haundia bada aspalditik, bestetan, gazteen artean edo mota guzietako ekitaldietan, elizkizunetan barne. Dena den gure perlak galtzen zirelakoan kantu xaharren bazkariak apailatzen hasi ziren duela kasik hogoi urte. Mixel Mendiburu, Auxtín Zamora, Otxikeneoak eta Hatsa elkarte-



UTZITAKO ARGAZKIA

Senpereko Kantuaren Eguneako partehartzaileak, aitzineko edizio batean.

ko lagunek baitezpada-koa ikusi zuten herriarrak elkarretaratzea kantuaren egunaren kariatat eta gisa huntan munta haundiko hamar bat biltzar egin dituzte. Egun horietan bildu kantuekin, zenbait liburu eta diska atera izan dituzte

ondarea denen esku uzteko eta gisa hortan betikoz ditugu Apextei, Laurent Elorga edo Fiffin Billon edo Auger Ibarrrak alegeraki ematen zituzten kantuak.

Urteak joan urteak etorri kantu xaharren bazkariak itxuraz alda-

tu dira gomita gehienak zendu baitira eta tokia gazteeri ematea pentsatu dute herriko kantuzaleek.

Ondoko hitz ordua apirilaren 2an finkatu dute Ibarrungo Inharrea baserrian eta “Hiruka’ntuz” lelopean horrat

gomitatu dituzte Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoko kantariak. Es-kiula, Armendaritze, Banka eta nola ez Senperealdeko kantariak bilduko dira beraz nor baino nor goxoan ari- tze-ko batzuek bertze-eei errepusta eman- ez agi- an. Kattalin Indaburu, Thierry Biscari Kalakan taldekoa, Xenderineko ahizpak, Martxel Brave eta Jean Noel Bessonart herriarrek ere parte hartuko dute kantu bazkarian. Bixente, Piarres, Txeutx eta zonbat herriar gazte- k gaitze-ko lana daramate egun hauetan egun hori be- har den bezala munta- tze-ko. Izenak eman (30 euro) lehenbailehen Piarres deituz 0033 (6)83829834.

12:00etan zintzur bustitzea izanen da eta 14:00etan bazkaria, kantu bilduma liburux- ka eskainia izanen zaie- larik parte hartzaile gu- ziei.

MARTXOAREN 13AN

V. Senpereko Trail mendi lasterketan 700 kirolarik parte hartu dute

F. DOLOSOR

Senpereko trail korrikaldia- ren bortzgarren edizioa biziki arrakastatsua izan da. Ibarrun- hasi eta bukatzen den eki- taldian 700 kirolarik parte har- tu zuten, hauen artean 22 nes- ka zirelarik. Florian Becker akiztarra nagusitu zen 21 ki- lometroko ibilbidea oren bat 44 minutu eta 9 segundoz bo- rolbiduz. Emakumeen artean,

Alizia Olazabal irundarra izan da bizkorrena, (bi oren, 6 mi- nutu eta 54 segundo).

Bidean 4 mendate igo be- har izan dituzte: Santa Barba- ra, Bizkarzun, Esnaur eta Su- halmendi. Hatsa, adorea, tek- nika eta entrenamendua be- har beharrezkoak dira beraz ibilibide aski zuta baita tarte- ka. Aitor Berra herriar- ra Sen- pereko Trailaren antolatzaile



ARGAZKIA: SPUC

Lau mendate gogor igo behar izan dituzte korrikalariek.

izan da orain arte baina aldi huntan parte hartu du lehian

bi oren eskas eman- ez ibilbi- dea egiteko.

SARA

KULTURA → MARTXOAREN 23AN

Bazkoko asteburua animatua izanen da aurten ere

Euskal Idazleen
Biltzarra 23.
aldikoz egingen
da astelehenean

Joana GERENDIAIN

Martxoaren 26tik 28-ra Bazkoko asteburua dela, usaian bezala ekitaldi ezberdinak antolatuak izanen dira Saran. Lur Berri gelan Eskuen Lana elkarteko kideen obrak ikusten ahalko dira, Denen etxean Larungo koloreak elkartearen tinta eta eskulturak, sartzea urririk da. Olhain ikastolak Herri Urratseko jantziak salduko ditu plazan.

Martxoaren 28an,

XXXIII. Euskal idazleen biltzarra egingen da kiroldegian. Itxaro Borda eta Michel Iturriaren lanak erakusgai izanen dira. Aurten lan berezi bat eramana izan da lehen mailako eta kolegioko ikasleekin, transmisioa gaiari buruz, eta proiektu horren bururapena aurkeztuko dute. Haurrentzat animazioak ere antolatuak dira. Sartzeak 2 euro balio du.

Entrenamendu berezia

Polikiroldegia hartua izanki, eskubaloiko entrenamenduak Azketa-ko ezker paretan egingen dira arratsaldeko 6:30-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Sara Trail eta mendi martxa

Martxoaren 27an, Sara Korrika elkartearen traila izanen da. Korrikalariak 9etan abiatuko dira plazatik 22 km-ko lasterketa batentzat. Ber denboran 15 km-ko mendi martxa bat antolatua da. Izen emateak egunean berean egingen dira, goizeko 7etatik goiti eta abiatzeak 7:30 eta 8:30 artean egingen dira.

etik 9:30 arte. Kuriositate baldin baduzue kirol hori ezagutzeko atekak idekiak izanen dira.

Mus txapelketa

Martxoaren 26an, Sarako Izarra errubi elkartek mus txapelketa antolatu du Omordian. Partidak arratsaldeko 4etan hasiko eta finalak gauean jokatu dira. Bertan ostatu bat izanen da eta taloak jaten ahalko dira. Izen emateak 0670706382 zenbakira deituz egiten

dira eta 12 euro balio du du bikoteka.

Etxeko kosmetika tailerra

Apirilaren 9an, larunbat arratsaldean, herriko etxeko edantegian Baidorriko "Etxean Egina" saboitegiko Audrey Nabais-ek tailerra bat antolatu du. Tailer horretan ikasten ahalko da aurpegiaren zainketa egiten produktu naturalekin. Arratsaldeko 2etan hasiko da eta bi edo hiru ordu iraunen

du. Izen emateak ostatuan berean egiten dira edo 0559542519 zenbakira deituz. Saioak 20 euro balio du.

Kirol emaitzak

Martxoaren 5ean eskubaloian seniorrek berdinketa erdietsi dute 27-27 Bordes-eko ekiparen kontra. Martxoaren 12an aldiz Senpereren kontra 22-13 galdu dute. Errugbilariek aldiz garaipen polita ezagutu dute Narosseko ekiparen kontra, 44-9.

Udaberria da!

Prestatu udaberria, zatozte gure ikusterat!
Mintegia, landareak, maskotak, egongelak, ongailuak...
eta aunitz gehiago!



84, 1945 maiatzaren 8ko etorbidea
64100 Baiona
tel: 00 33 5 59 42 24 42



Ikusi gure
web orriak euskaraz
ere!

www.lafitte.net



**ZURE OSPAKIZUNETARAKO
BEHAR DUZUN GUZTIA**

- ♥ Soinekoak
- ♥ Ilerako apaingarriak
- ♥ Poltsak
- ♥ Bisuteria
- ...

 Bidasoa, 12 • BERA
948 631 425



EZKONTZAK

Antonio Labrador Jurado eta **Maria Jose Legasa Sagaseta**, Kadiz eta Lesakakoa, martxoaren 5ean.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Izaro Ramirez Osegera, Gartzaingoa, martxoaren 7an.

Laia Iturbide Serrano, Etxalarkoa, martxoaren 10ean.

Saioa Antzizar Inbuluzketa, Sunbilla-koa, martxoaren 8an.

Iradi Arteaga Andresena, Legasakoa, martxoaren 1ean.

Hegoi Iparragirre Zelaieta, Arantzakoa, otsailaren 19an.

Xiker Etxepare Sein, Lesakakoa, martxoaren 11n.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

Rekordatorioak egiten ditugu



Nahi duzun argazki eta testuarekin prestatua

 **ttipi-ttapa**

Koskontako b., 7 | LESAKA | 948 635 458

HERIOTZAK

Margarita Zabaleta Olaskoaga, Leitzakoa, martxoaren 4an, 90 urte.

Jose Maria Gainza Elgorriaga, Bera-koa, martxoaren 2an, 84 urte.

Luis Ezkurra Mutuberria, Saldiaskoa, martxoaren 12an, 76 urte.

Victoria Oteiza Etxenike, Elizondokoa, martxoaren 12an, 94 urte.



**GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L**

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

BERA (SAN JOSE) | BERA (ITURLANDETA)
DONEZTEBE (SAN PEDRO) | ELIZONDO (BAZTANDARRA)
ELIZONDO (BAZTAN) | LESAKA

.....

TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTIA
ETA IRUNGO OSPITALETIK EDOZEIN HERRIETARA

.....

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

erran

Mendialdeko Albisteak
TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratia
elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK



Download on the Google play

Download on the App Store




Bost urterekin goratu zuen lehenbiziko harri handia Leitzako plazan eta berriki, 305ekoa bizkarreratu du. Emaitzak lortzeko «teknika perfektionatzea ezinbestekoa» dela dio

baina, perfekzio nahi hori batzuetan, traba ere izaten dela aitortzen du «altxaldi perfektua egin nahi izaten dut errekorren egunean eta urduritasunak tarteko, ez dut etxean lortutako

ehuneko ehuna ematen. Argi dago gorputza adina landu behar dela burua». Eta horretan dihardu, gutxi batzuen eskura dauden zifra borobilak bizkar gainera jasotzen segitzeko.

Inaxio PERURENA ZUBITUR | Leitzako harrijasotzailea

«Etxean lehenengoz harria goratzea lortzen denean, bideko neke guztiak ahazten dira»

Eneritz IRAOLA | LEITZA

Urrian prestatzen hasi eta otsail hondarrean lortu du Inaxiok 305 kiloko marka «prestaketa oso luzea da, denbora askoan ari zara zaintzen eta harriari ekiten diozunean segundo gutxian jokatzen duzu guztia». Hain zuzen, 19 segundoko iraupena izan zuen errekorreko altxaldiak eta zapo gazi-gozoa utzi zion «etxean altxaldi perfektua lortu eta plazan ez denean perfektua ateratzen, hobe egin izan duzunaren sentsazioarekin geratzen zara. Gainera, errekor honetarako pisu pixka bat hartu nuen kolpeetan oreka ongi mantentzeko. Azken entrenamenduetan ederki nenbilen baina gero plazan ez zen atera. Horregatik, agian, errekorreko egunean baino gehiago ospatu nuen etxean harriari lehenbiziko altxaldi ona eman nionean».

ENTRENAMENDU ZORROTZA

Emaiza horiek lortzeko, elikadura zaindu eta entrenamenduak zorrotz bete behar izaten ditu «astelehenetik

PLAZAKO EMAITZA

«Oso gogorra da, etxean lortu eta plazara irtenda altxaldi perfektua ez lortzea. Azkenean jendeak ikusten duena sinisten du eta etxean ere ezinean zabiltzala pentsatzen dute».

JENDEAREN ERANTZUNA

«305 kiloko markaren egunean, elurra ari zuen... ez nuen ikusle askorik etortzea espero. Aldageletatik atera eta frontoia beteta ikustea, babes hori sentitzea, ikaragarria izan zen».

asteazkenera gimnasioan pisuak altxatzen ari-tzen naiz, harriarekin entrenamendua egin ahal izateko hori egin beharra dago. Gero ostegun eta ostiralean luzaketak egin, oxigenatu, karga gutxiarekin ibiliz eta larunbatean harri handiarekin aritzen naiz».

ONGI NEURTUTAKO PAUSOAK

300 kilotik gorako harria jaso ahal izateko «teknika guztia perfek-

zionatu» behar izaten dela dio «harria non jarri, hankak lurrean non kokatu, belakak zenbat okertu, kolpe bakoitza non sartu... dena milimetro neurrituta daukat. Kanpotik begiratuta indar kontua dela dirudi, baina detaile pila bat hartu behar dira kontuan». Eta ez hori bakarrik, «elikadura ere entrenamenduen parte» bihurtu du «erretako kaloriak baino gehiago jan behar duzu beti».

MENTALITATE ALDAKETA

Buruak ere zeresan handia duela aitortu du «marka ahalegin bat dudanean, gaizki pasatzen dut, urduritasunak direla eta. Denborarekin ohartu naiz nire akatsik handiena plazako egunean altxaldia borobila, perfektua, izatea nahi dudala dela. Harria berdindu, zuzendu, publikoari begiratu... momentua gozatu, baina mentalitate hori aldatu beharra dut. Altxaldi perfektua etxean eman eta plazara homologatzera atera behar dut, ez perfekzio bila. Balantza eginda ere, adibidez, ongi goratu liteke harria».



ARGAZKIA: NEREA MAZKIARAN (DIARIO DE NOTICIAS)

Inaxio, 305 kiloko harria bizkarreratzen otsailean Leitzan.

BIDEAN ALDAPAK

Orain arteko ibilbideari errepasoa ematen hasita gora beherak izan dituela dio «baina, harrijasotzailea izanzen nintzela erabaki eta umetatik harri handien bidea hartu nuenean, erabaki horrek zekarrena onartu nuen». Lesioekin ere ez du zorte handiegirik izan, «hanka hautsi, gerrian arazoak eta harria hanka gainera ere erori» izan zaio «baina nire onera etorri eta harria berriro ere altxatzea lortu nuenean ibilbideko momentu gozoenetakoa izan zen».

Jendearengandik jasotako erantzuna ere azpimarratu nahi izan du «herri kirola dagoen puntuan egonda, plaza edo frontoia beteta ikusteak barrua betetzen dizu».

DIRU-LAGUNTZARIK EZ

Gaur egun, Inaxio Perurena da harri handietan goi mailan lehiatzen ari den bakarra eta ekonomikoki, egoera ez delaxamurra dio «udan egiten ditudan erakustaldietan lortutako dirua aurreztu eta horrekin ordaintzen ditut neguko entrenamenduak, laguntzarik ez dago». Horren ondorioz, herri kirol honek segida izatea zail dela uste du «hutsetik hasi den gazte baten-tzat ia ezinezkoa da».

305eko erronka lortuta, gorputzaldi onean dago eta lanean segita, beste ahaleginen bat egitea ere ez du baztertzen, «gorputzak onartzen duen arte» lanean segi nahi du, «hobetzen ari zarelarentitzeak engantxatu egiten baitu».

HERRI KIROLA → MARTXOAREN 6AN

Ramon Latasa gogoratu dute Sunbillan

Iker Vicente nagusitu zitzaion Larretxeari

TTIPI-TTAPA

Ramon Latasa aizkolari handia izandakoa oraindik gogoan daukatela erakutsi dute Sunbillan berriz ere eta bere heriotzaren 25. urteurrenean, jaialdi berezia egin zuten martxoaren 6an udal pilotalekuan.

Ramon Latasa, beti gogoan edukiko zaitugu zioen pankarta bat ezker horman itsatsia zela, jendetzak bete zuten pilotalekua. Jaialdia hasteko, Latasaren garaiko aizkolari handienetako bat aritu zen aizkoran; Patxi Astibia, 73

urteko leitzarrek oinbiko enbor bat moztu zuten, 7 minutu eta 47 segundotan.

Ondoren, aizkora desafio berezia jokatu zuten Donato Larretxea aizkolari beterranoak eta Otsagiko Iker Vicente gazteak, gaur egungo Nafarroako txapelduak. Larretxeak, aizkoran erabiltzen diren neurri guztietako enborrak moztu behar zituen, denetara, zazpi enbor; kanakoa (108 ontza), 80 ontzakoa, oinbikoa (72 ontza), (60 ontzakoa), kana-erdikoa (54 ontza), 45 ontzakoa, eta oinekkoa (36 ontza). Oraindik inork ez zuen egin horrelako lanik plaza batean. Iker Vicentek, berriz, 16 kana-erdiko ebaki behar zituen.



ARGAZKIA: JUAN MARI ONDIKOL

Jaialdiko protagonistak eta frontoia gainezka, Larretxea eta Vicente lanean ari zirela.

Larretxeak enborrak ttikienetik handira hasi zituen eta ez zuen suertirik izan, azkenekoa, kanakoa gogorra suertatu baitzitzaion. Hala ere, 37 minutu eta 18 se-

gundotan bukatu zuen lana. Hobetu nahi duenak, badu hobetzeko marka. Iker Vicentek 36 minutu eta 26 segundo aski izan zituen 16 kana-erdikoak mozteko,

52 segundo guttiago.

Biek ere omenaldi bikaina egin zioten Ramon Latasari, marka handi bat eginez eta frontoia betetzen zuten ikusleak gozaraziz.

DUATLOIA → MARTXOAREN 6AN JOKATU ZEN BASAURIN

Erreka bigarren izan da Euskadiko txapelketan


Taldeko hiru kideren denbora onenak kontuan hartuz

TTIPI-TTAPA

Martxoaren 6an burutu zen Basauriko XX. Duatloia, aurtengoan, Euskadiko txapelketa erabakitzeko baliaga-

rria zena. Kirolariek 6,2 kilometro lasterka, 18,9 km bizikletan eta hondarreko 2,9 km.ak berriz ere lasterka egin behar izan zituzten. Donetebeko Errekak ezusteko emaitza bikaina lortu zuen, bigarren izan baitzen taldeka, Araba-Tri taldearen ondotik eta Zarautz Triatloi Elkartearen aitzinetik.

Talde bakoitzaren hiru lehenbizikoen denborak kontuan hartzen zituzten sailkapena egiterakoan. Iñigo Arregi eta Santi San Miguel donetebarrak elkarrekin sartu ziren helmugan, ordubete, 12 minutu eta 30 segundoko denborarekin eta Jon Maritxalar sunbildarrak ordubete, 15 minutu eta 11 segundo behar izan



UTZITAKO ARGAZKIA

Jon Maritxalar, Iñigo Arregi, Santi San Miguel eta Endika Eugi, Basaurin azpitxapeldun

zituen ibilbidea osatzeko. Hiruen denborak baituz, 3 ordu, 40 minutu eta 11 segundo. Endika Eugi baztandarra ere

ez zen urrun ibili, Jon Maritxalarrek baino 20 segundo gehiago behar izan baitzituen proba burutzeko.

martxoak 24 - apirilak 7

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.eus edo 948 63 54 58

Ospakizunak



LESAKA | 2016.04.02

>> **Gazte Eguna ospatuko dute apirilaren 2an Lesakan**

Tailerra, bertsolariak, lehiaketa, bazkaria, jokoak, elektrotxaranga-ekin poteoa, kontzertuak, DJa... Egun osoko egitaraua prestatu du Gazte Asanbladak.

Feriak




ELIZONDO | 2016.04.01

Udaberriko feriarene barne XXVIII. ahari lehiaketa

Aziendak, ahari lehiaketa, artisautza eta bertako produktuak, dantzariak, Baztan Zopak, haurrendako tailerra... Egun osoko egitaraua Udaberriko Feria dela eta.

Ipuin-kontalariak



GOIZUETA | 2016.04.09

'Hotzikara ipuin erotikoak' helduentzako

Ines Bengoak eskainiko du Umore Ona Elkartearen, 19:00-etan. Munduaren hastapenetik erotismoa historian nola gertatu den kontatzen du ikuskizunak.

Lehiaketak

BERA

'Irakurketa instat batean' argazki lehiaketa

Apirilaren 14ra arte aurkez daitezke lanak.

BAZTAN

Baztandarren Biltzarreko kartel lehiaketa

Apirilaren 15era arte aurkez daitezke lanak.

Topaketak

SARA

XXXIII. Idazleen Biltzarra

Martxoaren 28an kiroldagian, 10:00etatik aitzinera.

Azokak

ELIZONDO

Artisau azoka

Martxoaren 25ean eta 26an.

Udaberriko feria

Apirilaren 1ean.

Ospakizunak

SUNBILLA

Pintxo Astea

Martxoaren 24tik 27ra.

DONEZTEBE

Sagardo Egunak

Martxoaren 25ean eta 26an.

LESAKA

Gazte Eguna

Apirilaren 2an.

Kantak

SARA

Euskal kantak

Martxoaren 27an 18:30ean elizan. Sar-tzea 10 euro. 15 urtez beheitikoek dohainik.

SENPERE

Kantu bazkaria

Apirilaren 2an Ibarrun-go Inharrea baserrian.

Erakusketak

BERA

'Ekinox'**Apirilaren 3ra arte**

Agurtzane Anduetzaren lanak Kultur Etxean asteartetik igandera, 10:00-14:00 eta 16:00-19:00 (igande arratsaldetan itxita).

ETXALAR

'Usoak sarean'

Martxoaren 28ra arte Kultur Etxean. 11:00-13:00 eta 17:00-19:00.

Paleta egite erakustaldia

Martxoaren 26an Kultur Etxe atarian (17:00).

Pello Apezetxearen omenaldiko argazkiak

Apirilaren 3an eta 10ean Zentroan.

SARA

Artisau erakusketa

Martxoaren 26tik 28ra Lurberri gelan, 10:00-etatik aitzinera. Eskuen Lanak elkartearen eskutik.

Margoak eta eskulturak

Martxoaren 26tik 28ra Denon Etxean, Larungo Koloreak elkartearen eskutik.

LESAKA

Sanferminetako kartel, azal eta gibealeko azal**lehiaketako lanak**

Martxoaren 24tik apirilaren 3ra Kultur Etxean.

Tailerrak

ARANTZA

Oinarritzko argazkigintza digitala

Apirilaren 2, 9, 16, 23 eta 30ean 09:30etik 13:30era Baskulan. Izen-ematea martxoaren 30era arte: 605 763687 edo irantzupastor@gmail.com.

ELIZONDO

Ilargiaren eragina**nekazaritzan eta udaberriko txertoak**

Apirilaren 3an Xabier Akizurekin. Izen-ematea Arizkunenean.

LESAKA

Oinarritzko argazkigintza digitala

Apirilaren 11tik maiatzaren 30era 19:30etik 21:30era Harriandoan. Izen-ematea apirilaren 5era arte: 689 285535.

Koru tailerra

Apirilaren 23an XX. mendeko musikaz, Harriandoan (09:00).

SARA

Kosmetika tailerra

Apirilaren 9an Herriko Etxeko Edantegian, 14:00etan.

Ipuin-kontalariak

BERA

Haurrentzako

Apirilaren 8an *Kulunkantauri* 3-9 urtekoen-tzat, Liburutegian.

GOIZUETA

Helduentzako

Apirilaren 9an *Hotzikara ipuin erotikoak*, 19:00etan Umore Ona Elkartearen.

PROPOSAMENA

SARA

Euskal Idazleen Biltzarra

Urteroko hitzorduari hutsik egin gabe, Euskal Idazleen Biltzarra antolatu dute Saran. Aurtengoa XXXIII. aldia izanen da eta martxoaren 28an egingen da. Lau gune berezi prestatuko dituzte: erakusketak artistikoen xokoa, liburuak doan irakurtzekoa, haurrena eta mintzaldi eta hedabideen xokoa. Orain arte Turismo Bulegoak kudeatu izan du, baina hemendik aitzinera, Idazleen Biltzarra elkarteak. 10:00etan irekiko dute.



Izen-ematea (0033)
683829834 telefonoan.

Dantzak

ELIZONDO

Bailable bereziak

Apirilaren 3an Baztan-
go dantzari eta gaite-
roekin, 12:45ean pla-
zan.

Ikuskizunak

BERA

'Ene kantak'

Apirilaren 10ean Kul-
tur Etxean, 17:00etan.

**Oliver magoaren
ikuskizuna**

Apirilaren 17an.

ELIZONDO

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Apirilaren 10ean
frontoian, *Amalur*
ikuskizuna.

Kontzertuak

ARANTZA

Txamukos taldearen disco aurkezpena

Martxoaren 25ean
Aterpen, 21:00etan.

Mendi irteerak

BAZTAN

Baztango Mendigoizaleen ateraldiak

Apirilaren 3an Baztan-
go XXIII. Mendi Itzulian-
ren 1.go zatia. Arizku-
nen 08:00etan.

Apirilaren 10an Hon-
darriara, 07:00etan.

SARA

Sara Trail lasterketa eta mendi martxa

Martxoaren 27an.
Mendi martxaren abia-
tzea 07:30etik 08:30era
eta lasterketarena
09:00etan. Informazio
gehiago: [www.sarako-
rika.com](http://www.sarako-
rika.com).

Ekitaldi gehiagoren
berri izateko, begiratu:
erran.eus

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Metamorfosis

FRANZ KAFKA

Erein, 2016

XX. mendeko literatura aldatu zuen liburua da *Metamorfosis*, zuzenean alemanetik itzulia. Goiz batean, Gregor Samsa amets nahasiak izan-
da ernatu zenean, zomorro beldurgarri bat bihur-
turik aurkitu zuen ohean bere burua. Zalantza izan
zuen amesgaiztotik aske ote zen ala ez. Baina, bai,
erne zegoen, eta zomorroaren izaerara egokitu
behar izan zuen. Harrigarria egiten zaigu zein na-
turaltasunez, zein errealismo izugarritz dagoen kon-
tataua pertsonaiari gertatzen ari zaiona. Aitaren be-
giratu eta autoritate moralaren aitzinean kokildu-
ta, bere gelako bakardade errudunera erretiratuko
da, bertako ezkutalekuetan babesteko. Kontaki-
zun eder honek hamaika interpretazio izan deza-
ke. Nolako arindua hartzen duen familia osoak zo-
morroaz –Gregor Samsaz– libratzen direnean! Ez
da komizitaterik eta umorerik (beltza) falta, ez ho-
rixe.

Musika



Nomadak eta kofrea

KEU AGIRRETXEA

Mauka, 2016

Hiru urtez esperoan egon ondotik, Ondarruko
(Bizkaia) abeslariak diska berria argitaratu du:
Nomadak eta kofrea. Lan honek Keuren soinu-
rik onena eta helduena dakar. Lana Madrilen graba-
tu du eta musikari ezagunak izan ditu ondoan: Ja-
vi Calambres (Superskunk, Bebe) baxuan, David
Bao (O'Funkillo, Raimundo Amador) baterian, Car-
los Noain (Naica) teklatueta eta sintetizadoreekin
eta Keu bera gitarra akustiko, elektriko eta aho-
tsean aritu da. Lana Haritz Harreguyk nahastu du
Higan Estudioetan (Usurbil, Gipuzkoa). Kolabo-
ratzaile aunitz ere izan ditu: Jairo Zavala, Pablo No-
voa, Mikel Ereñxun, Xabi Solano eta Izaro Andre-
sena, bertzeak bertze. Gainera, Mikel Etxaburu,
Kirmen Uribe eta Aiert Goenagak idatzitako isto-
rio ederrei ahotsa paratu die diskoan. Maukatik
adierazi dutenez, «Keuren lanik asmo handikoena
eta borobilena da».

Internet




Itzulpengintzari eta
euskararen erabilerari
buruzko bloga

31ESKUTIK.COM

Itzulpengintzari eta euskararen erabilerari buruzko
bloga da 31eskutik.com, 2012ko urriaren 16az
geroztik EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta In-
terpreteen Elkarteak elikatzen ari dena. Hogeita ha-
maika kideren partaidetza eskuzabala da blogaren
indarra eta mamia: egunean batek idazten du, eta,
hartara, bakoitzak hilean behin idazten du. Blogak
31 eskutik du izena, eta blogariak askotarikoak di-
ra jatorriz, alorrez eta estiloz: itzultzaileak, idazle-
ak, kazetariak, irakasleak... Blogari bakoitzak as-
katasun osoa du nahi duen alderditik jotzeko: go-
goeta labur bat izan daiteke, akats edo joeraren
bat kritikatu, zerbait agerrarazi edo laudatu, erabi-
lera-eremu batean edo bertzean arazotsu gerta-
tzen den hitz, esapide edo esaldi-moduak aipatu,
ahozko hizkerako edo literaturako adibide edo ba-
liabideak gogora ekarri...

Nire aukera



Ines MATXIARENA ALDALUZ
Beran bizi den donostiarra

**«Kosta eta itsasoa,
biak behar ditut,
ez dut bata bertzea
gabe ulertzen»**

Donostian jaio baina,
Beran bizi da Ines
aspalditik, «gipuzkoarrak
beti nafar» dio irribartsu.
Egunerokoaz disfrutatzen
saizten den emakumea
da «familiar egotea, la-
gunarteko solasaldiak,
irakurtzea, abestea...»
maite duena. Gustuko
abesti, pelikula eta liburu
bati buruz galdetuta «ai-
ta orotarazten didan La-
boa eta Leteren edozein
kantu, *Novecento* peli-
kula eta *El segundo sexo*
eta *Mujeres de ojos gran-
des* liburuak» aipatu di-
tu. Soinean beti «tama-
lez, mugikorra» darama-
la aitortu du, baina, hori
bai, zoriontsu izateko
«osasuna» omen da be-
har duen gauza bakarra.
Bidaia tzea ere gustuko
du «leku desberdinak
ezagutzea» eta aukera
balu «Zelanda Berrira»
joanen litzateke. Gazi edo
gozoaren artean, auke-
ratzen ibili beharrik gabe
«gazitik hasi eta gozoa-
rekin bukatzea hobe, txo-
kolate beltz beltzarekin».
Inesen euskarazko hitz
kuttunena «tximeleta» da
eta «matxismoa» da
beriz gehien gorrotatzen
duena. Horregatik agian,
«Euskal Herri more eta
libre» batekin egiten du
amets.

ETXEBIZITZAK

salgai

ORONÓZ-MUGAIRI. Pisua salgai, 90 m²ko azalerakoa. Etxe moblezatua, berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainugela ditu. 90.000 euro negoziagarriak. Eta 60 m²ko bajera ere salgai 15.000 eurotan. **948 585036.**

ANZABAL

INMOBILIARIA

BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian
- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

URDAZUBI
- Etxe berri bat salgai, moblezatua. 2000 m²ko lursailarekin.


DONEZTEBE
- **Aukera:** 102 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean dago. 3 logela, jangela, egongela, 2 komun, sukalde moblezatua eta 17 m²ko trastelekuak.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

ELIZONDO. Akullegi karrikan 2 logelako pisua salgai. Prezioa: 63.000 euro. **646 774117.**

ELIZONDO. Herri erdian, Maria Azpilkueta karrikan, 3 logela, sukaldea, egongela, bi balkoi, komuna, trastelekuak eta kotxea aparkatzeko lekua aterpean. Egoera onean. Deitu eta ikusi konpromisorik gabe. **687 661251.**

**MERKATU TTIKIA**

948 63 54 58

info@titi.eu edo erran.eu

SAIL HONETAN **IRAGARKIA** JARTZEKO **10€** ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO **12€**
IRAGARKI BAKOITZEKO **GEHIENEZ 25 HITZ** ONARTUKO DIRA

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutzako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

ETXEBIZITZAK

erosi

LEITZA. Baserri bat elkarrekin erosteko jende bila gabiltza. Gu bikote gazte bat gara. **616 484498** edo idatzi mezu bat **leitzaanbaseria@hotmail.com** helbidera.

ETXEBIZITZAK

errentan emateko

DONEZTEBE. Pisua errentan emateko. Egoera oso onean. Leku ederra. **659 489140.**

URDAZUBI. Plazan pisua errentan emateko. Bi logela, sukalde-jangela ederra eta bi bainugela. **659 849570.**

BERA. Pisua errentan emateko. 3 logela, bainugela, sukaldea despen sarekin eta egongela. Eguzkitsua. **637 289103.**

BERA. Altzaten pisua errentan emateko. 4 lo-

gela, bainugela, sukaldea eta egongela. Bista ederrekin. Leiho handia egongelan. Txukuna. **678 947804.**

ETXEBIZITZAK

errentan hartzeko

Bortzirietan **baserri edo borda** bat errentan hartuko nuke, 2 hektarea inguruko lur eremuarekin. **655 028593**

BERA. Bikote batek etxebizitza bat errentan hartu nahi du. **680 745698 / 650 847071.**

GARAJE/LOKALAK

salgai

BERA. Garaje itxia salgai. 17 m², Correoseko eraikinaren lurrazpian. 25.000 euro. **626 568984.**

GARAJE/LOKALAK

errentan emateko

BERA. Legia karrikan, 51.

zenbakian, lokala bat errentan emateko. 50 m²koa. **686 990087.**

LURRAK/ORUBEAK

errentan hartzeko

Bikote gazte batek proiektu autogestinatua bat aurrera eramateko, **lursail bat** alokatu nahi du, baserri edo bordarekin. Ura eta sarbidea autotz. Zonaldeak berdin du. **699 286251 / 686 433133. alaintxoftxof@gmail.com.**

ZERBITZUAK

denetarik

Arreta. Jaiotza edo erlijio irudiak zaharberritzen ditut. **647 293044.**

ZERBITZUAK

ile-apaintzaileak

Etxez-etxe ile-apaintdegiz zerbitzua eskaintzen dut. **680 268131** (Mari Luz).

ZERBITZUAK

klase partikularrak

Ingelesko eta txinerako klaseak ematen ditugu Beran, Agerra auzoan. 40 euro hilabetea. Irakasle titulatuak eta atzerrian ibiliak. **600 309807.**

**ZERBITZUAK**

zurgindegiak

ARANTZA
Zurgindia.....

• Klase guzietako zurgin lanak
• Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea
Tel: 948 634 068 - 647 810 144
Gorritibaita - ARANTZA

LANA

eskariak

ESKUALDEA. Emakumea lan bila. Administraziozko ikasketak eta beste hainbat alorretan lan esperientziarekin: ostalaritzan bereziki, saltzaile bezala, garbiketalan... Sektore hauetan lan egiteko interesatua. **639 692343.**

Interna moduan adinekoak zaintzen esperientzia eta erreferentziak dituen emakumea lan bila dabil, orduka edo interna moduan aritzea. **618 081748.**

Elizondon bizi den **27 urteko neska** euskaldun

BASERRIA

DATU ITURRIA: **NAFARROAKO GOBERNUA**
(martxoaren 4tik 11ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA

Zerrikumea
(19 kilo): 38 €

Zerri gizena
0,939 € kiloak.

Zerramak:
0,540 € Kg/bizirik.

BEHIKIA

Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 4,16
1.koa 3,93
2.koa 3,75
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,24
1.koa 3,97
2.koa 3,80

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 140,00
idixkoak 228,00

Aretze nabarrak:
urruxak 120,00
idixkoak 180,00
Zaldikoak: €/k
Sortuberrak: 3,03/3,13
Zaldi-behorrak: 1,84/2,04
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,80/6,80
8-10 kilokoak: 5,00/5,40

batek Elizondo aldean adinekoak zaintzen, zerbitzari bezala, administrari bezala, saltzaile edota garbiketan lan eginen luke. ☎649 901395.

ELIZONDO eta INGU-RUAN gizonezkoa lan bila. Mendian, baserriko lanetan eta eraikuntza bezalako arloetan esperientzia duena. Edozein lan egin eta ikasteko prest. ☎695 399352.

ELIZONDO eta INGU-RUAN neska lan bila. Adinekoak eta haurrak zaintzen esperientzia duena. Adinekoak interna ala orduka zaintzeko edota garbitze-lanetan aritzeko interesatua. ☎631 039914.

LANA eskaintzak

On-line lanean aritzeko, zerbitzariak, komertzialak, autonomoak edo bertzelako langileak behar dira. ☎699 382673.

IBARDIN. Beola Etxea Bentan astelehenetik ortziratera, egun erdiz lan egiteko administraria behar da. Bidali curriculum-a: beolaetxea@gmail.com.

LESAKA. Zerbitzaria behar da. Bidali curriculum-a: m.evag@terra.com.

ZUGARRAMURDI. Sukalde laguntzailea eta fregatzen aritzeko lagun bat behar da. ☎948 599482.

ZUGARRAMURDI. Egunez aritzeko sukalde laguntzailea behar da. Deitu 10:00etatik 17:00-etara. ☎948 599022.

IBARDIN. Beola Etxea Bentan sukalde laguntzailea behar da aste-buru eta jai egunetan lan egiteko. ☎948 630709, beolaetxea@gmail.com.

URDAZUBI. Montxo ostatu-jatetxean esperientzia duen sukaldaria behar da. ☎948 599039.

MOTORRAK salgai

Seat Leon FR autoa salgai, HXS matrikula, 2014ko ekainekoa. 150 zaldi. ☎679 828780.

MOTORRAK tailerrak



ANIMALIAK oparitzeko

Zakurkumeak oparitzeko aita artzain zakurra (oso ona) eta ama ere oso zintzoa. ☎650 797669.

DENETARIK salgai

Sei altzairuzko frega-

dera salgai, haundiak, 1,5 metro luze, forma borobildunarekin. ☎948 585036.

ORONÓZ. Egurra xehetua salgai. Pagoa eta haritza. Etxera eramainen da. ☎676 242520.



BERA. Erlauntzak salgai. ☎948 630079.

Akaziazko piketeak salgai. ☎667 885749.

DENETARIK erosi

Erremolkea erosi nahi nuke, **bobinak** eramatekoa balitz hobe. 2000

Automóviles IMOBA
Okasioko ibilgailuen salerosketa
FORD auto berriak eta Km 0

FORD FOCUS TITANIUM
2013 URTEKOA - DIESELA

FORD FOCUS FAMILIARRA
2011 - DIESELA

FORD CMAX DIESELA
2012 URTEKOA - 83.000 KM

Irun-Iruña errepidea
N-121-A 63.km **BERA**
948 630 750 | 648 231 361
www.automovilesimoba.com

eta 2004 urte artekoa.
☎642 993776.

TELEFONO GIDA 2016

INGURUOTAKO TELEFONO GUZTIAK

Baztan | Bertizarana | Bortzirak | Leitzaldea | Malerreka | Urdazuri



- 5.700 ale
- Praktikoa eta erraza

- Komertzioak
- Lantegiak
- Zerbitzuak
- Erakundeak
- Partikularrak...

Aurten berrikuntza bat zuri eskaintzeko **zure enpresaren datuak internet eta app bidez klik batean**



Zure enpresa sartu nahi?

Milaka pertsonen ikusiko dute zure iragarkia

Informa zaitez

T. 948 63 54 58 | publi@ttipi.eus

urtebetetzeak

Argazki soilak: 5€; bikoitzak: 10€

Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,42€ko 12 edo 24 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 5 edo 10 €ko txekia; 4) erran.eus bitartez



Lakuntzako **LIDE SAN SEBASTIAN** ARRAIZAK martxoaren 21ean 9 urte egin ditu. Besarkada haundi bat eta musu pila bat familia guztiaren partetik.



Etxalarko **MALEN INDAIBERE** SANZBERROK 5 urte bete ditu martxoaren 9an. Zorionak eta aunitz urtez, bizkoxo goxoa prestatu!



Elizondoko **MALEN IPARRAGIRRE** OTEIZAK martxoaren 20an 3 urte bete ditu. Aunitz urtez printzesa! Muxu haundia etxekoien partetik.



Narbarteko **IRAIA MARTIN ARGANEK** martxoaren 24an 4 urte beteko ditu eta amatzik **KONTXIK** apirilaren 8an 66 urte. Zorionak aunitz eta muxu pila pila bat familia guztiaren partetik, eta bereziki Juneren partetik.



Laidak eta **NINBEK** 8 eta 13 urte bete dituzte martxoaren 4an eta 9an. Zorionak familia guztiaren partetik.



ENAITZ IPARRAGIRRE ARRETKEA gure etxeko gizontxoak 7 urte beteko ditu martxoaren 31n. Aunitz urtez eta muxu bat Bera eta Sunbilla familiaren partetik.



Zorionak **FERMIN!** Zeruntako osaba eta izebaren partetik, besarkada eta muxu handi bat. Maite zaitugu.



KEMEN GARRO ORDOKI lesakarrak 5 urte beteko ditu martxoaren 23an. Aunitz urtez monono! Milaka muxo familia guztiaren partetik, eta ederki ospatzera!



Lesakako **AITOR MUTUBERRIA** ZELAIETAK urtea beteko du martxoaren 24an eta aitaxo **MIKELEK** apirilaren 15ean. Zorionak Lesakako eta Legasako familiaren partetik.



Irurritako **SAIOA PEROTXENA** DANBORIENAK 8 urte bete ditu martxoaren 16an! Aunitz urtez familia guztiaren partetik eta bereziki Peio anaia eta Leire lehengusinarekin partetik! Muxu aunitz!!



ANER ARSUGA ALZUGARAY Ibarakoak martxoaren 27an urte bat beteko du. Zorionak morroxko Lesaka eta Ibarako familiaren partetik. Muxoooooooo haundi bat eta bereziki erraldoi bat Beñaten partetik.



Zorionak Donezteboko **NAHIA BELARRA** MARIEZKURRENARI martxoaren 26an 5 urte beteko dituelako, Ezkurra eta Donezteboko familiaren partetik, bereziki Oier, Enaitz, Ainhitze, Ekhi eta Naroaren partetik. Prestatu merendu goxoa!



Erratzuko **IKER ITURBURUA** JAURENA eta **ENAITZ VICONDO** JAURENAK martxoaren 11n eta 18an, 13 eta 7 urte bete dituztelako, zorionak familiaren eta bereziki Haritz eta Naroaren partetik. Muxuak.

erran

Mendialdeko Albisteak

TTIPI-TTAPA aldizkaria eta XORROXIN irratiak elkarrekin eskuko telefonoan eta tabletan

e ERABILI ETA ZABALDU EDUKIAK



- ERRAN.EUS web bertsioarekin denbora errealean sinkronizatua
- ZU ZEU KAZETARI: nahi dituzun informazio eta argazkiak bidaltzeko aukera ematen dizu
- PERTSONALIZATZEKO AUKERA nahi den gai eta herrien arabera bilaketak egiteko aukerarekin

DESKARGATU APLIKAZIOA DOAN



Albisteak

Agenda

Komunitatea

Xorroxin online

Eguraldia

Merkatu ttikia

Urtebetetzeak

Bideoak

Galeria



Txapatera

Nekazal Etxea Izaban



3 apartamentu
Denera 2-24 lagunentzat

Apartamentu bakoitza:

- 3-8 lagunentzat
- 3 logela bikoitz
- Ohe gehigarria
- Egurrezko sua
- Sukalde-egongela-jangela
- Mikrouhin, telebista, ontzi garbigailu, DVD...
- Berogailua



Almadien eguna
2016 / 04 / 30

Ingurua

Ingurune paregabea urteko edozein garaietan disfrutatzeko.

Martxotik aitzinera gozatu Nafarroa, Aragoi eta Frantzia aldeko Piriniotan paseatu eta mendi txangoak eginez.

Txundituta geratuko zara inguruarekin, Iratiko basoa, Kakuetakozintzurra, Belagua...

Mila aukera zure esku!



Elurretako Amabirjina / Iratiko basoa



Kakuetakozintzurra / Holtzarteko zubia



Izaba



Belagua

Barrikata auzoa, 29, 31417 Izaba, Nafarroa
txapatera@gmail.com · 630 709 764

ttipi txartela rekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA
MUSUTRUK

-%80ko DESGRABAZIOA
ERRENTA AITORPENEAN
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:
TTIPI-TTAPA
Koskontako bidea, 7 LESAKA
T 948 63 54 58 | F. 948 63 54 57
info@ttipi.eus | erran.eus



**ZOZ
KE
TAK**

Baztan Abentura - 2 sarrera
Oihana Erbiti | LEITZA
Zugarramurdi lezeak - 2 sarrera
Mertxe Txueka | IRUÑEA
Arkupe - Txokolate lote bat
Xabier Zapata | ARIZKUN
Eureka! Zientzia Museoa - 2 sarrera
Arantzazu Grajirena | LEITZA

Onddo ta punto - Kamiseta bat
Agustin Sanchez | DONEZTEBE
Donostiako Aquariuma - 2 sarrera
Trini Zelaieta | ELIZONDO

Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat
Maddi Goñi | ORONOZ-MUGAIRI

Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat
Natividad Otegi | SUNBILLA

Ibaizabal argitaletxea - Liburu bat
Elisabet Letamendi | NARBARTE

657.
aleko
irabazleak

ELE MELE MAHAI-JOKOA
URTXINTXA ARGITALETXEA
www.urtxintxaeskola.org

2 SARRERA
IRRISARRI LAND
www.irisarriand.com

GUDA DANTZA CD BAT
BAGA BIGA
www.baga-biga.eus

GONBIDAPENAK
EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA
www.eurekamuseoa.es

2 sarrera
Heldu bat eta gazte bat

5 SESIOKO BONOIA
URDI KIROLDEGIA
www.urdisl.com

Toki Ona - Bera
UDAL KIROLDEGIA
5 sesioko bonoa
(mushulazio gela, sauna (lehera eta herza))

2 SARRERA
DONOSTIAKO AQUARIUMA
www.aquariumss.com

2 sarrera

**LI
BU
RU
AK**



- Atzaparra zubien
Unai Elorriaga - Patxi Peláez
- Haizeak eraman zuen mapa
Uxue Alberdi - Patxi Peláez

elkar
www.elkar.com

**DES
KON
TUAK
%**



LEITZA | %5, 30€tik gorako erosketetan



BERA | %5, konpokatetan



FOTO MENA

ELIZONDO | %10, kopia digitalean



LESAKA | %10, eskeketan



DONEZTEBE | %10



LEITZA | %5, 30€tik gora